

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Durangoko Udala

Ayuntamiento de Durango

2009



AURKIBIDEA / ÍNDICE

0. LABURDURAK	3
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 UDALA	8
II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	8
II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA	10
II.2 UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK.....	11
II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	11
II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA	11
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	12
III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA	12
III.2 LANGILERIA	13
III.3 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK.....	13
III.4 KONTRATAZIOA	13
III.5 BESTELAKO ALDERDIAK	15
III.6 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK	15
IV. FINANTZEN ANALISIA	17
V. URTEKO KONTUAK	20
V.1 UDALA	20
V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK	23
ALEGAZIOAK	27
0. ABREVIATURAS	53
I. INTRODUCCIÓN	55
II. OPINIÓN	56
II.1 AYUNTAMIENTO	56
II.1.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD	56
II.1.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	58
II.2 ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y SOCIEDADES PÚBLICAS MUNICIPALES ..	59
II.2.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD	59

II.2.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	59
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	60
III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD	60
III.2 PERSONAL	61
III.3 TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES	61
III.4 CONTRATACIÓN	62
III.5 OTROS ASPECTOS	63
III.6 ORGANISMOS AUTÓNOMOS LOCALES Y SOCIEDADES PÚBLICAS	63
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	65
V. CUENTAS ANUALES	68
V.1 AYUNTAMIENTO	68
V.2 ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y SOCIEDADES PÚBLICAS	71
ANEXOS	75
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación que le resulta de aplicación .	75
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	76
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	78
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	79
A.5 Gastos de personal	80
A.6 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	81
A.7 Inversiones reales	82
A.8 Pasivos financieros	82
A.9 Deudores presupuestarios.....	83
A.10 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	84
A.11 Clasificación funcional del gasto	85
A.12 Análisis de contratación	86
A.13 Organismos autónomos y sociedades públicas locales.....	87
A.13.1 Ingresos por transferencias y subvenciones corrientes.....	87
A.13.2 Personal.....	87
A.13.3 Contratación	88
ALEGACIONES	89



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

0. LABURDURAK

- BAO Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
- BOE Estatuko Aldizkari Ofiziala
- DOUE Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
- INEM Enplegu Institutu Nazionala, egungo Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.
- SPKL 30/2007 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
- EFPL 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- DLO 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa.
- TAOAL 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
- TEOA 1312/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunen Arautegia.
- LZ Lanpostuen Zerrenda.
- APKLTB 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua.
- LELTB 1/1995 Legegintzazko Errege Dekretua, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateratua.
- Udalhitz Tokiko euskal erakundeen lanerako baldintzak arautzen dituen akordioa.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Durangoko Udalaren, bere Toki Erakunde Autonomoen eta sozietate publikoen 2009ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria; baita udalaren eta bere erakunde autonomo eta sozietate publikoen aurrekontuen likidazioa ere.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.

Astarloa Kulturgintza, Bartolomé Ertzilla Musika Eskola eta Erdi Mailako Kontserbatorioa, Udal Euskaltegia eta Durango Kirolak, Durango Eraikitzen, S.A. eta Landako Erakustazoka, S.A. Gainera, Durango Komunikabideak, S.A. sozietatearen titular bakar da, 2009an jarduerarik izan ez zuena; eta Durangoko Merinaldearen Mankomunitatearen eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren kide da.

II. IRITZIA

II.1 UDALA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. Udalak 2009ko ekitaldian udal irrati zerbitzuaren esleipendun zen enpresatik zetorren pertsona bati aldi baterako kontratazioa egin zion harik eta beste esleipen bat egin arte; horrek berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratzen ditu.
2. Udalak 2009an aldi baterako bost kontratazio gauzatu zituen, hiru lanpostu hutsa betetzeko eta beste bi plaza sortu arte. Espedienteetan hautatutako izangaiak beste udal jakin batzuetako zerrendetan izena emana dutela soilik dago erasota; ordea, ezin egiaztatu izan da prozedura honek berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gordetzen dituela.
3. 2008ko urriaren 30ean Udalaren Osokoak bertako langileen Lan Baldintzak Arautzen dituen Erabakia onetsi zuen 2008tik 2010era bitarteko urteetarako. Erabaki hau Erakunde Autonomoei ere badagokie eta ez zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu (EFPLren 102.3 art.).

Diru-laguntzak (ikus A.6)

4. Udalak 2009ko urtean zehar 0,5 milioi euroko hainbat laguntza eman zizkien kultura, kirol eta gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko 28 erakunderi modu zuzenean, publizitate eta lehiarik egin gabe eta printzipio horiek ezartzea eragotziko zuten arrazoiak egiaztatu gabe (DLOren 22.3 art.).

KONTRATAZIOA (ikus A.12)

5. Kalebarria liburutegi berriko obrak (8 zk.ko espedienteak), 2,6 milioi eurokoak, eta Landako igerilekuen eraikina eta instalakuntzak eraikitzeko kontratuaren aldaketa bat (6 zk.ko espedienteak), 1,3 milioi eurokoa, alkatetzaren dekretu bitartez esleitu ziren, Osokoak onartu beharrean.
6. Udal eraikinak garbitzeko kontratua (2 zk.ko espedienteak) 1,9 milioi euroan esleitu zen; kontratu honek kontrataturiko zerbitzuaren betebeharrak nagusiekin bat ez zetorren sailkapena eskatzen zuen eta horrek bidegabe lehia mugatu zuen.
7. Hiru obra-proiektutan aldaketak egin ziren eta horiek egiaz exekutatu ondoren onetsi ziren (8, 9 eta 10 zk.ko espedienteak):
 - Kalebarriako liburutegi berria eraikineko lanen proiektua aldatu egin zen 2009ko martxoan eta 0,4 milioi euroko aldaketa izan zuten; bertan, obraren hasierako faseetan egindako lanak baliokidetu zituzten. 2009ko azaroan 0,6 milioi euroko zenbatekoarekin egindako azken ziurtagirian proiektuan aurreikusitako gabeko unitate berriak txertatu ziren; horrek zegokion kontratu aldaketa eragin behar zukeen.



- Lariz Torre zaharberritzeko lanen azken ziurtagiria 2009ko uztailean egin zen 0,1 milioi euroren zenbatekoarekin; ziurtagiriak proiektuari egindako aldaketak baliokidetzen zituen.
 - Mañaria ibaiaren gaineko zubiaren azken ziurtagiria 2009ko abenduan egin zen 0,1 milioi euroren zenbatekoan eta ziurtagiriak proiektuari egindako aldaketak baliokidetzen zituen.
8. Bi kontratutan (6 eta 8 zk.ko espedienteak) aldaketak egin ziren; kopurua aintzat hartuta, kontratazio araudiaren lehia printzipioak urratzen dituzte, izan ere, kontratuaren xedea ez ezik, bolumen ekonomikoa ere desitxuratu egin baitute; igoera ez dute arrazoi berri edo aurreikusi ezinekoek justifikatzen:
- Landako igerilekuen eraikina eta instalakuntzak eraikitze obrak 2006an esleitu ziren 8,8 milioi euroren zenbatekoan; ordea, kostua % 32 gehitu zuten proiektuari egin zitzaizkion bi aldaketen ondorioz eta azken ziurtagiria zela-eta onetsitako igoeren ondorioz.
 - Kalebarriako liburutegi berria eraikitze obrak 2,6 milioi euroren zenbatekoan esleitu ziren; ordea, kostua % 37 gehitu zuten proiektuari egin zitzaion aldaketa baten ondorioz eta azken ziurtagiria zela-eta onetsitako igoeren ondorioz.
9. TAO eta ibilgailuak erretiratzeko zerbitzuen kudeaketa kontratua (3 zk.ko espedienteak) 2006an abiarazi zen. Zerbitzuaren agindua 2009ko azaroan aldatu zen eta kontrolatu beharreko plazak % 12 areagotu ziren; ordea, ez da kontratuaren gaineko dagokion aldaketa izapidetu.

Epaitegi honen iritzira, Durangoko Udalak, 1etik 9ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete du 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalaren 2009ko ekitaldiko aurrekontu likidazioaren sarreren 4. kapituluak itunpeko zergetan parte-hartzeagatik kitatutako eskubideak (Udalkutxa) barne hartzen ditu; eskubide horiek 15,3 milioi eurokoak dira eta 2009ko ekitaldiaren kontura egindako emakidei eta 2008ko ekitaldiaren kitapen negatiboari dagozkio; hor jasotzeko dago 2009ko ekitaldiaren kitapen negatiboa, 3,7 milioi eurokoa. Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluak 2010eko otsailaren 19an erabakitakoari jarraiki, kopuru horren itzulera hileroko egingo da 2011ko urtarriletik 2013ko abendura arte, Udalkutxaren konturako dagozkion emakidekin berdinkatuz.

1. Udalak 2000n ibilgetuaren balorazioak berrikusi zituen eta urte horretatik aurrera idazpuruetakoko saldo globalak aldatu zituen aurrekontuen kontabilitatean jasotako informazioa baliatuta. Hala eta guztiz ere, ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetuaren elementu bakoitzeko xehapenik egiten. Horregatik guztiagatik, ez dezakegu zehaztu ea ibilgetuko kopuruek 09/12/ 31n Udalaren ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duten.
2. Hona hemen 2009ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinak, data horretan itxitako Egoera Balantzeak eta Funts Propioak eragiten dituzten doiketak:

Eranskina	Kontzeptua	Aurrekontuzkoa Diruzaintza geldikina	Euroak milakotan		
			Aktiboa	Pasiboa	Funts propioak
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak					
A.3	Ur hornid. tasak, 2009ko 4. hiruhilekoa	245	245	-	245
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak					
A.4	Udalkutxa: 2009ko likidazioa (2011-13 iraungipena).....	-	-	3.666	(3.666)
A.7	2009ko fakturak, 2010ean erregistratuak	(802)	572	802	(230)
	Suteen aurkako foru zerbitzuari ekarpena	(102)	-	102	(102)
	Merkagune 2008 diru-lag., 2010ean itzultakoa	(132)	-	132	(132)
	Faustegoiena sektorea birsaikatzeko kostuak, 2008an onets.	(126)	-	126	(126)
Beste batzuk					
A.4	S.Roke biribilgunea diruz lag. finantzak. desbideratzea eta beste	(2.064)	-	2.064	(2.064)
A.8	09.12.31n erabili gabeko maileguen kontzep. aitort. sarrera	(1.603)	(1.603)	(1.603)	-
GUZTIRA		(4.584)	(786)	5.289	(6.075)

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. idatz-zatietan azaleratutako salbuespenen eragina salbuetsita, Durangoko Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2009ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2009ko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.



II.2 UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIETATE PUBLIKOAK

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (ikus A.13.2)

- Landako Erakustazoka S.A.: Segurtasun-zerbitzuak 0,2 milioi euroko kostua izan zuen 2009ko urtean eta 2004an esleitu zen, esleipenerako erabili ziren prozedurak erasota ez daudela; horrek publizitate eta lehia printzipioak urratzen ditu.

Epaitegi honen ustetan, 1. paragrafoan azaldutako ez-betetzea alde batera, 4 erakunde autonomoek eta 2 udal sozietateek zuzentasunez bete dute 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Hona hemen 2009ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta 4 erakunde autonomoen eta 2 udal sozietateen Funts Propioetan eragina duten doiketak:

Eranskina	Kontzeptua	Aurrekontuzkoa Diruzaintza geldikina	Euroak milakotan		
			Ondarezkoa		Funts propioak
			Aktiboa	Pasiboa	
A.13.1	Musika Eskola: EA Eren diru-lag. 2009-10 ikasturtea	100	100	-	100
	MUSIKA ESKOLA GUZTIRA	100	100	-	100
A.13.2	Euskaltegia: 07.1.1etik lanpostuen balorazioa	(150)		150	(150)
	UDAL EUSKALTEGIA GUZTIRA	(150)	-	150	(150)

- Udalak ez ditu Kontu Orokorrean Durango Komunikabideak, SAren finantza egoerak barne hartzen, jarduerarik gabeko sozietate publikoa dena. Udalbatzak 2009ko uztailean sozietatea desegiteari ekitea onetsi zuen; horren aktibo bakarrak banku-kontu batean daude jasoak, 09.12.31n 53 mila euroko saldoa zutenak.

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan azaleratutako akatsak salbuetsita, Astarloa Kulturgintza, Bartolomé Ertzilla Musika Eskola eta Erdi Mailako Kontserbatorioa, Udal Euskaltegia eta Durango Kirolak Erakunde Autonomoen kontu orokorrek eta Durango Eraikitzen, S.A. eta Landako Erakustazoka, S.A. sozietate publikoen kontu orokorrek alderdi esanguratsu guztietan 2009ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa, ondarearen eta 2009ko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzak erakusten dituzte.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2009ko ekitaldian indarrean egon zen 2008ko aurrekontuaren luzapena. Aurrekontuko arautegiak ez ditu zehaztasunez arautzen luzatu beharreko diru-izendapenak eta “aurreko ekitaldian amaitu behar zuten” zerbitzu eta programetarako kredituak ez direla luzatuko baizik ez du esaten. Mugaketa honek, nagusiki, kapitalezko eragiketetan du eragina, baina irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei ematen zaizkien diru-laguntzetan ere zalantzak sortzen ditu. Honi dagokionez, Udalak 2008ko aurrekontuaren diru-laguntzetarako izendapenak osotasunean luzatu zituen, 1,5 milioi eurokoak; ordea, komenigarria izango zatekeen diruz lagundutako jarduera mota aztertzea, izaera puntuala dutenak bereiziz. Aipatutako azterketa hori, aurrekontuaren osotasunari dagokiona, txosten batean jaso behar litzateke, luzapena onesten duen ebazpenaren euskarri gisara.
- Udalak 2009ko ekainean gastuen aurrekontuaren igoera onartu zuen; hori finantzatzeko lursailen salmenta aurreikusi zuen, baina ez zen gauzatu, 2009ko azaroan egindako deialdirako ez baitzen eskaintzarik aurkeztu. Hori dela eta, Udalak gehitutako gastu kredituak balio gabetu zituen, baina nahitaezko aldaketa espedienteak izapidetu gabe. Halaber, ez dago kredituak gaitzeari buruzko espedienterik, ekitaldiaren azken hiruhilekoan guztira 0,6 milioi euroan egindakoa. 0,6 milioi euroko transferentzia batean eta 0,2 milioi euroko beste aldaketa-espediente batean –transferentzia eta sarrera berrien bitartez finantzatzen zena-, aldaketa horiek guztiak onesten dituzten ebazpenak falta dira.
- Tokiko sektorearen aurrekontuaren egiturak ez du bitarteko funtzionarioentzat berriazko izendapenik aurreikusten, ohikoena plaza hutsa betetzea baita. Ordea, behin-behineko funtzionarioak gaixotasun bajak betetzeko, programa zehatzak garatzeko edo lan metaketari aurre egiteko ere kontratatzen dira eta honenbestez, komeniko litzateke bereizitako diru-izendapenak erabiltzea dagokien aurrekontuko aurreikuspenarekin, aldi bateko lan kontratupeko kontratazioetarako eskatzen den moduan.
- Udalak ez zituen bi kultur erakunderi, bi kirol federaziori eta fundazio bati emandako diru-laguntza kontzeptuan urte-anitzeko konpromisoak erregistratu, guztira 0,4 milioi euro egin zutenak.
- Udalak ez ditu OTA-aparkalekua arautzeko zerbitzuak eragindako sarrera eta gastuak erregistratu, enpresa zerbitzu emaileak egindako konpentsazioak direla-eta -izan ere zerbitzu-tasaren zerga-bilketan kolaboratzen baitu- eta derrigorrezko kitapenak tramitatzean dauden atzerapenak direla-eta.



III.2 LANGILERIA

- Udalak 2009an 5 langile kontratatu zituen hutsik zeuden lanpostuak betetzeko eta horretarako Durangoko INEM eta Langai baliatu zituen. Kontratuak izango zuten iraupena aurreikusita, egokiagoa zatekeen publizitate bidez hautaketa prozesua deitzea.
- Lan-poltsak erabili ohi diren prozesuetan egindako gestioen ebidentzia utzi beharko litzateke. Gainera, langileen kontratazio prozesuak arautu behar dira, fiskalizazio-gai izateko moduan.
- 2009ko irailean Osokoak guztira 160 lanpostu zituen LZ onetsi zuen, une hartan indarrean zegoen aurrekontu-plantillan baino 20 gehiago. LZren helburua udal antolamendua hornitzen duten lanpostu egonkorren betekizunak definitzea da eta aurrekontu-plantillarekin bat etorri behar du.
- 2007ko uztailearen 24ko osokoaren erabaki bitartez, dedikazio eskusiboa zuten korporatibo kopurua gehitu zen (alkatea eta zinegotzi bat talde politiko bakoitzeko) eta horien ordainsariak zehaztu zituzten. 2004ko beste udalbatza batean hartutako erabakiak batzorde eta osoko bilkuretara joateagatik ordainak finkatu zituen. Erabaki hauek BAOn argitaratu behar ziratekeen (TAOLen 75.5 art.).

III.3 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Udalak bi gurasoen elkarteri bi ikastetxeetako energia eta mantentze gastuak subentzionatzen dizkio, guztira 0,1 milioi euroren zenbatekoarekin. Udal hauek Udalaren gastu propioak dira eta 2. kapituluko gastu modura bideratu behar lirateke.
- Udalak 25 mila euroko diru-laguntza eman zion fundazio bati eta honek Durangoko kirol taldeei laguntza emateko programa bat finantzatzeko baliatzen du laguntza hori. Azken onuradunen arteko funtsen banaketa Udalak kudeatu beharko luke zuzenean edo aipatutako fundazioa izendatu erakunde laguntzaile.

III.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 10 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.12):

Espedientea eta esleipena

- Guztira 32,3 milioi euroko zenbatekoarekin esleitutako 9 kontraturen pleguek (espediente guztiak 5 zk.koa salbuetsita) merkatze ehuneko batetik behera eskaintza ekonomikoenak zigortzen dituzten formula aritmetikoak barne hartzen dituzte.
- Guztira 13,4 milioi euroren zenbatekoarekin esleitutako 6 kontratutan (3, 4, 6, 7, 8 eta 9 zk.ko espedienteak) kontratatuko den obra edo zerbitzuaren funtzionaltasunekin zerikusirik ez duten betekizunak balioztatzen dira (APKLTBren 86.1 art.). Pleguetatik hiruk (7, 8 eta 9 espedienteak) esleipen irizpide modura enpresa kalitatearen egiaztagiria eta/edo erabiliko zuten zurari buruzko egiaztagiri tekniko jakin bat barne



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

hartzen zuten; ezaugarri horiek, ordea, onarpen irizpide edo proiektuaren definizio modura jaso behar dira. 3 zk.ko espedientearen pleguak kontratatu asmo zen langileriaren ezaugarriekin eta prozedurekin lotutako alderdiak balioztatzen zituen. Beste bi kontratutan, berriz, (4 eta 6 zk.ko espedienteak) txosten teknikoetan enpresa-ziurtagiriak ere hartzen dira aintzat, izaera orokorreko irizpideak ebaluatzen baitituzte.

- Halaber, plegu guztiek balorazio irizpidetzat hartzen zituzten gehitutako hobekuntzak eta hobekuntza horien ezaugarriei maila ezberdina zehazten zuten; ordea, sei kasutan (2, 4, 7, 8, 9 eta 10 zk.ko espedienteak) guztira 7,1 milioi euroko esleipenak egin zirenetan, ez zitzairen lehiatzaileei adierazten aurkeztutako proposamenak puntuatzeko erabili beharreko balio-taula.
- 9 plegutan (espediente guztiak 5 zk.koa salbu) izaera orokorreko irizpideak barne hartzen dira eta ez dira haztatutako azpi-irizpideetan zehazten proposamenak balioztatzerakoan aintzat hartu asmo diren alderdiak.
- Horrez gain, esan behar da Udalak ez duela obra proiektuen gainean nahitaezkoa den ikuskapena egiten, obra mota bakoitzari ezargarriak zaizkion betekizun legezko zein teknikoak gogoan izan direla egiaztatzeko (APKLTBren 128. art. eta SPKLren 109. art.).

Exekuzioa eta harrera

- Hautatu diren 5 obratan (6, 7, 8, 9 eta 10 zk.ko espedienteak), guztira 13,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak, ez dago erasota Segurtasun eta Osasun Plana onetsi denik edo bestela, atzerapenez onetsi da.
- Kontratuetan aldaketak egiten direnean kontratistak gordailatutako bermeak gaurkotu behar dira; hau ez zen horrela egin edo atzerapenez egin zen 9,5 milioi euroren zenbatekoan esleitutako bi kontratutan (6 eta 7 zk.ko espedienteak).
- Guztira 12,3 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 3 obra kontratutan (6, 8 eta 9 zk.ko espedienteak), obrak egiteko epea aintzat hartuz gero ezargarria zen prezioen berrikuspena; ordea, kasu bakar batean eskatu zen (6 zk.ko espedienteak), 0,7 milioi euroren zenbatekoan. Bi kasutan (6 eta 8 zk.ko espedienteak) pleguek ez zituzten ezarri beharreko gaurkotze formulak finkatzen eta hirugarrenean, obrak egiteko epea 12 hilabetetik gora luzatu zen, prezioak gaurkotzeko formulak finkatu gabe.
- Guztira 12,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 4 obra kontratutan (6, 8, 9 eta 10 zk.ko espedienteak) atzerapenak izan dira obrak egiteko edo amaitzeko epeetan. Hiru obra (6, 9 eta 10 zk.ko espedienteak), 19, 15 eta 6 hilabetetan egitea aurreikusi zen, baina exekuzioa aurreikusitako epearekiko 25, 7 eta 9 hilabetetan luzatu da; ordea, ez da epe hori luzatzeko izapiderik gauzatu (APKLTBren 95. art. eta SPKLren 197. art.). Beste bitan (6 eta 8 zk.ko espedienteak) azken ziurtagiria egiteko epea 4 eta 5 hilabete atzeratu zen (APKLTBren 147. art. eta SPKLren 218. art.).
- Bi espedientetan, 1,3 milioi euroko esleipenei zegozkienetan, kontratistek gordailatutako bermeak berme-aldia amaitu aurretik itzuli ziren (SPKLren 90. art.) (4 eta 9 zk.ko espedienteak).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Beste batzuk

- 9 plegutan (espediente guztiak 5 zk.koa salbu) balio-judizioa eskatzen duten esleipen irizpideak erabiltzen dituzte (azterketa maila, oroitidazkiaren kalitatea, antolamendua, laguntza teknikoak, e.a.) % 10 eta 75 bitarteko pisu aldagarria dutenak. Irizpide hauekin lehiatzaileek proiektua ulertzeko egindako ahalegina baloratu nahi da, gerora kontratua gauzatzekoan egiazko eragina izan dezakeena; hala ere, badirudi egokiagoa dela horren haztapena mugatzea.

III.5 BESTELAKO ALDERDIAK

- Durangoko udalerrian udalaren eskumeneko diren zerbitzuak erakunde kopuru handiak ematen ditu, izan ere, udal administrazioari 4 erakunde autonomoak, 2 udal sozietateak, Mankomunitatea (Gizarte zerbitzuak, prestakuntza, ingurumena, euskara, e.a.) eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa gehitu behar zaizkio. Erakunde autonomoei dagokienez, esan behar da figura hau egokia dela deszentralizatu nahi den zerbitzuak izaera administratiboa duenean eta jarduera-bolumen handiak erakunde berri bat sortzea justifikatuko duenean. Hala ez bada, emandako zerbitzuak udal administrazioak berriz bere gain hartzea edota bestelako molde juridikoak erabiltzeko aukerak aztertu behar dira.

III.6 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

Aurrekontua

- Astarloa Kulturgintza eta Durango Kirolak: 2008ko 1. eta 2. Kapituluetakoko diruzendapenak 2009ko aurrekontura txertatzen dituzte, guztira 0,2 milioi euroren zenbatekoan, arautegiak aurreikusten dituen baldintzak bete direla egiaztatu gabe (Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 10/03 F Aren 32. art.).

Langileria

- 2009an onetsi zen lau erakunde autonomoen Lanpostu Zerrendak, Udalean bezalaxe, indarrean zegoen aurrekontu-plantilla 19 lanpostutan gainditzen zuen. Horrez gainera, LZren eta plantillaren artean hainbat alde puntual azaleratu dira; izan ere bi erakundetan lanpostu bereizi modura hartzen baititu zuzendari lanpostua eta ikasketa buruarena, beste lanpostu batzuei metatzen zaizkien egitekoak izan arren.
- Astarloa Kulturgintza: 2009ko urtarrilaren 1ean pertsona bati lanaldi partzialeko eta urteko iraupeneko kontratatua egin zitzaion; horretarako, uda partean langileria kontratatzeko 2004an egindako lan-poltsa baliatu zen. Kontratuaren iraupenak eta baliatutako poltsaren antzinasunak eta berezitasunak komenigarria egiten zuten berriazko deialdia egitea.
- Durango Kirolak: Bi pertsona kontratatu zituen 2009ko ekitaldi osorako, kontratazioei berriazko publizitaterik eman gabe. Hautatutako bi langileek INEM eta Langai-ri



egindako eskaeren ondorioz 2002an eta 2005ean sortutako lan-poltsetakoak ziren; kontratuen iraupena aintzat hartuta, ordea, hautaketa prozesuak publikitatea emanda bideratu behar ziratekeen. Soroslari eta mantentze-langileen lan poltsa hauek iraupen laburragoko beste 4 kontrataziotan erabili ziren. Duten antzintasunak berritza gomendatzen du.

Kontratazioa (ikus A.13.3)

- Durango Kirolak: 2007an kirol ikastaroak antolatzeko kontratua esleitu zuen eta honako huts hauek azaleratu dira:
 - Esleipen irizpidetzat lehiatzaileek kalitate ziurtagiriak eskuratzea hartu da; ezaugarri hori, ordea, onspen irizpide modura hartu behar zatekeen aintzat. Gainera, hobekuntzak baloratzea aurreikusi da baina ez dira ez hobegarri diren alderdiak zehazten, ezta nola haztatuko diren ere (APKLTBren 15. art. eta hurrengoak).
 - Kontratuaren indarraldia 2009ko irailaren 3an amaitu zen eta egikaritzen jarraitu zuen, pleguetan aurreikusitako urteko luzapena onetsi gabe.
 - Alderdi ekonomikoak % 30 osatzen zuen, baina eskaintza egitea bideratzen zuen soilik prezioaren osagai aldakorraren gainean ikasle kopuruaren proportzioan; honek 2009ko abenduko ziurtagirian kostu guztiaren gainean % 5 baizik ez zuen egin. Prezioaren osagai finkoaren gainean (begiralearen kostua/orduko) ez zitekeen merkatze eskaintzarik egin.

Beste batzuk

- Durango Eraikitzen, SA sozietateak udal transferentziak beharrezko zen kopurura egokitu zituen, emaitzak ondo orekatzeko. Irizpide bera jarrai liteke beste udal sozietatean, erakunde autonomoetan eta Durangoko Merinaldearen Mankomunitateari egindako ekarpenetarako; hartara, mendeko erakundeetan geldikinen izatea mugatuko litzateke.



IV. FINANTZEN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua. Konparazio ondorioetarako, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalen batez bestekoen 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu dira (eskuragarri dauden azken datuak).

FINANTZEN ANALISIA	Milako eurotan			Euroak biztanleko			Erref. 2007	
	Urtea			Urtea			Bizk	EAE
	07(*)	08(*)	09	07	08	09		
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.)	10.698	11.166	12.147	389	401	430	404	424
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (kap. 4)	17.284	18.078	15.933	629	649	564	740	722
Ondare sarrerak (5. kap.)	1.021	1.019	319	37	37	11	33	27
A. Diru-sarrera arruntak	29.003	30.263	28.399	1.055	1.087	1.005	1.177	1.173
Langileria gastuak (1. kap.)	6.804	7.538	8.023	248	271	284	347	348
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.)	8.278	8.361	8.968	301	300	318	383	366
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.)	6.198	7.120	7.745	226	256	274	150	166
B. Funtzionamendu gastuak.....	21.280	23.019	24.736	775	827	876	880	880
Aurrezki gordina (A-B)	7.723	7.244	3.663	280	260	129	297	293
- Finantza gastuak (3. kap.)	213	231	194	8	8	7	3	7
Emaizta arrunta.....	7.510	7.013	3.469	272	252	122	294	286
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	1.000	923	923	36	33	33	48	48
Aurrezki garbia	6.510	6.090	2.546	236	219	89	246	238
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	5	4.974	226	-	179	8	98	115
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.)	1.364	1.207	7.699	50	43	273	76	70
- Inbertsio errealak (6. kap.)	18.996	13.808	14.263	691	496	505	289	317
- Kapital transf. eta diru-lag. (7. kap.).....	100	47	3	4	2	-	15	24
Kapitalezko eragiketen emaitza	(17.727)	(7.674)	(6.341)	(645)	(276)	(224)	(130)	(156)
Eragiketa ez finantz. emaitza (1etik 7rako kap.).....	(10.217)	(661)	(2.872)	(373)	(24)	(102)	164	130
Diruzaintzako geldikina	18.286	14.783	12.365	666	531	438	590	503
12.31n zorpetzea.....	4.614	3.691	2.768	168	132	98	46	149

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Iturria: Toki Erakundearen Kontuei buruzko HKEEren 2007ko txostena. "Bizk." eta "EAE" erreferentziak, 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean dituzten Bizkaia eta EAEko udalen datuei dagozkie.

Sarrera arruntak: 0,6 milioi euro egin dute behera 2007 eta 2009ko urteen artean; (2008an % 4ko igoera izan zuen eta 2009an, berriz, % 6ko beheraldia); gainera, jokamolde ezberdina izan dute zerga sarrerek batetik (1etik 3ra bitarteko kapituluak), beste administrazio batzuetatik eratorritakoek (4. kapitulua) eta ondare sarrerek (5. kap.).

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** 1,4 milioi egin dute gora aztergai izan den aldian (% 14), osagai nagusienetan igoerak izan dituztela; bereziki gailentzen da Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga, igoeraren erdia eragin duena. Ordenantza fiskalak aldatzarekin Udalak 2008rako % 2,7ko igoerak ezarri zituen eta 2009rako, berriz, % 3koak osotasunean, zaborren bilketa zerbitzua salbuespen izanik (% 4).
- **Transferentziak eta diru laguntzak:** 2007-2009 aldia 1,3 milioi euro murriztu dira (% 8). Osagai nagusienak, itunpeko zergetan partaidetza, alegia, 2008an 2 milioi euroko igoera



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

izan zuen eta hurrengo ekitaldian 3 milioi euro jaitsiko da; aztergai izan dugun aldian, beraz, 1 milioi euroko jaitsiera izan du. Gogoan izan behar da partaidetza horretako likidazioak eskagarritasunaren arabera erregistratzen direla: 2008koa, negatiboa izan da 2 milioi euroren zenbatekoan eta 2009ko ekitaldiari egotziko zaio; 2009ko ekitaldiaren likidaziotik eratorritako 3,7 milioi euro negatiboak, berriz, etorkizuneko urteetan erregistratuko dira, itzultzea gauzatzen denean.

- **Ondare sarrerak:** 0,7 milioi euro egin dute behera 2007 eta 2009ko ekitaldien artean, % 69 hain zuzen ere, diruzaintza erabilgarria eta interes tipoak jaistearekin batera.

Funtzionamendu gastuak: 2007 eta 2009 bitartean 3,4 milioi euro egin dute gora, 2008an igoera % 8koa izanik eta 2009an, berriz, % 7koa.

- **Langile gastuek** 1,2 milioi euro egin dute gora 2007-2009 aldian zehar, LZko lanpostu hutsak betetzeko egindako langileen kontratazioaren ondorioz eta 2008an gauzatutako % 5,2ko eta 2009an % 2,4ko igoeren ondorioz; igoera horiek Udalitza 2008/10 tokiko euskal erakundeen lan baldintzen Akordio Erregulatzaileak agindu zituen.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak** 0,7 milioi euro gehitu ziren hirurtekoan, % 8a, aldaketa handirik izan gabe.
- **Transferentzia eta diru-laguntzak** 1,5 milioi euro gehituko dira (% 25) eta azpimarratzekoak dira erakunde autonomoi egindako ekarpenak, 0,8 milioi euroko igoerarekin.

Aurrezki gordina: 2007 eta 2009 bitartean 7,7tik 3,7 milioi eurora gutxitu da. Beheraldiaren arrazoi nagusiak dira, batetik, itunpeko zergen diru-bilketan partaidetza sarrerak murriztu izana eta bestetik, gastu arruntek gora egin izana.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. Finantza zamari egonkor eutsi zaio eta Landako Erakustazoka, S.A. ustiatzen duen eraikinaren erosketak eragindako indarreko zorpetze eragiketa bakarraren ondorio da. Zorpetzeari dagokionez, zorraren zenbatekoa 2009ko aurrezki garbiaren parekoa da eta ekitaldi bereko sarrera arrunten % 10a egiten du.

Kapitalezko eragiketen emaitza: Inbertsio-ahalegina aztertutako aldian handia izan da, 47,2 milioi euro egiazko inbertsio eta kapitalezko diru-laguntzen artean; inbertsio horiek zati batean 2009an Toki Inbertsioen Estatuko Funtsetik jasotako diru-laguntzekin finantzatu dira; baita, aktiboen salmentarekin ere, guztira inbertsioen % 33 finantzatu dutenak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Diruzaintza geldikina: Magnitude honek % 32 egin du behera aztertutako aldian, inbertsioak finantzatzeko iturri modura erabili baita. Gogoan hartuta batetik Epaitegi honek proposatu dituen doiketak, 4,6 milioi eurokoak eta bestetik, 2009ko ekitaldiko itunpeko zergetan parte hartzeagatik likidazio negatiboa, 3,7 milioi eurokoa, -udalak kontabilizatu ez duena-, 2009ko ekitaldian Diruzaintza geldikinaren murrizketa 2008ko ekitaldiarekiko, % 72koa izan da.

Biztanleko ratioak-beste udal batzuekiko alderaketa: 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean dituzten Bizkaiko eta EAeko udalen batez bestekoaren 2007ko datuak aurkeztuko ditugu informazio modura (eskuragarri dauden azkenak). Udalaren datuekiko alderaketak egin ahal izateko, gogoan hartu behar dira zerbitzuak ematean dauden aldeak, izan ere, zenbaitetan zerbitzuak zuzenean ematen baitira udal administrazioetik bertatik, eta beste zenbaitetan, erakunde autonomo, merkataritza sozietate publikoen bidez edo zeharka, mankomunitate, partzuergo edo merkataritzako beste sozietate batzuen bidez.

Ondorioa: Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

Durangoko Udalean sortutako aurrezki garbia nabarmen murriztu da itunpeko zergen diru-bilketak behera egin izanaren ondorioz; itunpeko zergetan toki administrazio guztiek hartzen dute esku. Zerbitzuen kostuek gorako joera izan dute, egonkorturik dagoen, edo baita behera doan sarrera arrunten eszenategi berriak eskatzen duen doiketa egin gabe. Aztergai izan dugun aldian Udalak inbertsio programak emaitza arruntekin, diru-laguntzekin eta geldikinerako bidea baliatuta finantzatu ditu. Diruzaintza geldikinak zenbateko adierazgarria du 09.12.31n, nahiz Epaitegi honek proposatu dituen eragina aintzat hartu behar den. Honenbestez, zorpetze-maila garrantzi txikikotzat har daiteke. Horregatik guztiagatik, 09.12.31n finantza egoera osasuntsua izan arren, Udalak zerbitzuek eragiten dituzten kostuen gainean esku hartu behar luke; epe laburrera, berriz, inbertsioak finantzatzeko geldikina eta zorpetze-bidea ditu, baita aktiboak salduta diru-laguntzak edo sarrerak eskuratzeko aukera ere.

2010eko aurrekontuaren likidazioan, gastu arruntei eutsi zaien arren aurrezki garbia 0,3 milioi eurotan murriztu da, izan ere, sarrera arruntek ere behera egin baitute. Horregatik, urte horretako inbertsioak -8,6 milioi euro-, hein handi batean aktiboen salmentatik eratorritako diru-sarrera ezohikoen bidez (3,3 milioi euro) eta kapitalezko diru-laguntzen bidez (3,9 milioi euro) finantzatu dira.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2009-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE. KITAT.	KOB.R. ORDAINK.	KOB.R. GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.				
1.- Zerga zuzenak	A.3	5.818	-	5.818	6.236	5.883	353	107
2.- Zeharkako zergak	A.3	950	-	950	1.195	628	567	126
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	3.786	53	3.839	4.716	4.090	626	123
4.- Transf. eta dirul. arruntak	A.4	14.404	1.105	15.509	15.933	15.723	210	103
5.- Ondare sarrerak.....		894	-	894	319	308	11	36
6.- Inbertsio errealeen besterentzea		-	311	311	226	226	-	73
7.- Transf. eta kapitalezko diru-lag.....	A.4	-	7.215	7.215	7.699	3.386	4.313	107
8.- Finantza aktiboen aldak.		69	13.613	13.682	4	4	-	(*)100
9.- Finantza pasiboen aldak.....	A.7	-	1.603	1.603	1.603	-	1.603	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		25.921	23.900	49.821	37.931	30.248	7.683	(*)105

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK

1.- Langileria gastuak.....	A.5	7.617	462	8.079	8.023	7.873	150	99
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.....		9.063	644	9.707	8.968	7.429	1.539	92
3.-.- Finantza gastuak	A.7	231	(25)	206	194	194	-	94
4 Transf. eta dirul. arruntak.....	A.6	7.323	1.162	8.485	7.745	7.589	156	91
6.- Inbertsio errealeen besterentzea		648	21.684	22.332	14.263	13.193	1.070	64
7.- Transf. eta kapitalezko diru-lag.....		47	(27)	20	3	3	-	15
8.- Finantza aktiboen aldak.		69	-	69	4	4	-	6
9.- Finantza pasiboen aldak.....	A.7	923	-	923	923	923	-	100
GASTUAK GUZTIRA		25.921	23.900	49.821	40.123	37.208	2.915	81
SARRERAK - GASTUAK					(2.192)			



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA	Euroak milakotan			
	HASIER. ERANSK.	ZORRA BALIOG.	KOBR./ ORDAIN.	AZKEN ZORRA
Zordunak	8.648	(89)	5.409	3.150
Hartzekodunak	1.781	-	1.766	15
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA				(89)

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak	37.931
Obligazio aitortuak	40.123
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA	(2.192)
AURREKO EKITALD. KITATUTAKO AURREKONTU ERAGIKETEN EMAITZA	(67)(*)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	(2.259)
Finantziazio-desbideratzeak	(3.492)
Diruzaintza geldikinarekin finantzaturako gastuak	13.613
DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA	7.862

(*) Baliogabetzeez gain urteko itzulketek eragindako sarrerak ere barne hartu dira.

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikin likidoa 09.1.1ean	14.782
Aurrekontuaren emaitza	(2.259)
Kaudimengab. zuzkiduraren hornid. bariazioa	(960)
Sarrerren itzulketak eta beste txikiago batzuk	802
DIRUZAINZAKO GELDIKIN LIKIDOA 09.12.31-N	12.365
Diruzaintza	7.757
Aurrekontuko zordunak (A.8)	10.833
Aurrekontuz kanpoko zordunak	283
Aurrekontuko hartzekodunak	(2.930)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(918)
Kaudimengabeziatarako hornidurak (A.8)	(2.660)
DIRUZAINZAKO GELDIKIN LIKIDOA 09.12.31-N	12.365
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina	-
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GELDIKINA	12.365
09.12.31-N ZORPETZEA (A.7)	2.768



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2009-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSK. 09 URTEA	08 URTEA	PASIBOA	ERANSK. 09 URTEA	08 URTEA
IBILGETUA	74.697	63.733	FUNTS PROPIOAK	82.642	74.774
Erabilera orokorrekoa.....	5.118	1.366	Ondarea	53.786	53.786
Ibilgetu ezmateriala.....	750	471	Lagapenean dagoen ondarea.....	405	405
Ibilgetu materiala.....	67.834	60.901	Lagatako ondarea.....	(916)	(916)
Ibilgetu finantzarioa.....	995	995	Erabil. Orokor. emandako ondarea	(44.447)	(44.447)
			Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	65.946	61.199
			Galerak eta Irabaziak	A.9 7.868	4.747
ZORDUNAK	8.376	7.184	HARTZEKODUNAK EPE LUZERA	4.375	3.695
Aurrekontuzkoak.....	A.8 10.833	8.648	Finantzetxeen maileguak e/luz.	A.7 4.371	3.691
Aurrekontuz kanpokoak	203	236	Bermeak.....	4	4
Kaudimengab. zuzkid.	A.8 (2.660)	(1.700)	HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA	3.804	3.213
			Aurrekontuzkoak.....	2.930	1.782
FINANTZA-KONTUAK	7.748	10.765	BEZarengatiko hartzek.	29	30
Aldi bateko finantza inberts. ...	-	-	Entitate publiko hartzekodunak	988	592
Bermeak	(9)	(1)	Aurrekontuz kanpokoak	(172)	(45)
Diruzaintza	7.757	10.766	Bermeak eta gordailuak	29	25
			Erakunde publikoak, sarreren itzulketagatik	-	829
AKTIBOA GUZTIRA	90.821	81.682	PASIBOA GUZTIRA	90.821	81.682

2009-KO EKITALDIAREN GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

GASTUAK	09 URTEA	08 URTEA	DIRU-SARRERAK	09 URTEA	08 URTEA
Langileen gastuak.....	8.112	7.655	Negozio zifratik zenbateko garbia.....	3.190	2.941
Kaudimengab. zuzkid. aldak.	960	465	Zerga zuzenak	6.236	6.008
Ibilgetua amortizatzeko zuzk.....	2.959	2.762	Zeharkako zergak	1.195	891
Tributuak	-	-	Jasotako transf. eta diru-lag.	24.462	18.456
Kanpoko zerbitzuak	8.879	8.244	Kudeaketa arrunteko bestel. sarrerak.....	1.499	2.765
Emandako transf. eta diru-lag.	7.749	7.166			
USTIAKETA MOZKINA	7.923	4.769			
Finantza gastuak.....	194	231	Sarrera finantzarioak.....	208	833
FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	14	602			
Aurreko ekitaldietako gastu eta galerak	94	638	Aurreko ekitaldietako mozkinak.....	25	14
			AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK	69	624
APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK	-	-			
EKITALDIKO MOZKINA	7.868	4.747			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

AITORTUTAKO ESKUBIDEAK	KULTURGINTZA	KIROLAK	EUSKALTEGIA	MUSIKA
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	57	473	83	348
4.- Transferentzia arruntak	1.418	1.865	493	962
5.- Ondare sarrerak	2	10	1	3
8.- Aktibo finantzarioak	-	-	-	2
GUZTIRA	1.477	2.348	577	1.315

2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

OBLIGAZIO ONARTUAK	KULTURGINTZA	KIROLAK	EUSKALTEGIA	MUSIKA
1.-Langileria gastuak	616	1.055	442	1.027
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.	715	911	61	194
3.- Finantza gastuak	1	1	-	-
4.- Transferentzia arruntak	6	6	6	43
6.- Inbertsio errealak	-	65	-	86
8.- Aktibo finantzarioak	-	-	-	6
GUZTIRA	1.338	2.038	509	1.356

AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Euroak milakotan

	KULTURGINTZA	KIROLAK	EUSKALTEGIA	MUSIKA
ZORDUNAK				
Hasierako zorra	19	12	-	285
Baliogabetzeak	-	-	-	-
Kobrantzak	19	12	-	285
Azken zorra	-	-	-	-
HARTZEKODUNAK:				
Hasierako zorra	20	18	13	30
Baliogabetzeak	-	-	-	-
Ordainketak	20	36	13	30
Azken zorra	-	-	-	-

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

	KULTURGINTZA	KIROLAK	EUSKALTEGIA	MUSIKA
Eskubide kitatuak	1.477	2.348	577	1.315
Obligazio aitortuak	1.338	2.038	509	1.356
INDAREKO AURREK. AURREKONTU EMAITZA	139	310	68	(41)
AURREKO EKITALDIEN AURREKONTU EMAITZA	7(*)	-	-	-
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	146	310	68	(41)
Finantziario-desbideratzeak	-	-	-	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak	154	151	74	108
DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA	300	461	142	67

(*) Aurrekontu itxietako gastuen itzulketa



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZAKO GELDIKINA

Euroak milakotan

	KULTURGINTZA	KIROLAK	EUSKALTEGIA	MUSIKA
KOBRATZEKO DAUDEN ZORDUNAK:				
Diru-sarreraren aurrekontukoa, arrunta.....	22	3	1	326
(Kobratzeko zalantzako saldoak)	-	-	-	-
GUZTIRA (A)	22	3	1	326
ORDAINTZEKO DAUDEN HARTZEKODUNAK:				
Gastuen aurrekontukoa, arrunta.....	65	144	13	22
Aurrekontukoak ez diren beste hainbat eragiketetakoa	26	43	39	45
GUZTIRA (B)	91	187	52	67
DIRUZAINZAKO FONDO LIKIDOAK (C)	425	985	193	113
DIRUZAINZAKO GELDIKINA (D=A-B+C)	356	801	142	372
FINANTZAKETA ATXIKIA DUTEN GAST. GELDIKINA (E)	-	-	-	-
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA (D-E)	356	801	142	372

EGOERAREN BALANTZEA 2009-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	Kulturgintza	Kirolak	Euskaltegia	Musika	Eraikitzen	Landako
Ibilgetua.....	74	464	31	131	1	8.339
Erabiler orok. emand. azpiegit. eta ondasunak ..	7	-	-	-	-	-
Ibilgetu materiala	67	464	31	104	1	95
Ibilgetu ezmateriala.....	-	-	-	23	-	8.244
Ibilgetu finantzarioa	-	-	-	4	-	-
Aktibo erabilkorra.....	447	988	194	439	132	239
Zordunak	22	3	1	326	-	116
Diruzaintza	425	985	193	113	132	123
AKTIBOA	521	1.452	225	570	133	8.578
FUNTS PROPIOAK.....	430	1.265	173	503	61	163
Ondarea	119	123	24	86	61	360
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	182	836	79	377	-	(112)
Galerak eta Irabaziak	129	306	70	40	-	(85)
Hainbat urtetan banatzeko sarrerak	-	-	-	-	-	8.244
Hartzekodunak epe laburrera.....	91	187	52	67	72	171
Aurrekontuko hartzekodunak	65	144	13	22	11	157
Entitate publiko hartzekodunak	26	40	39	45	61	14
Bermeak eta gordailuak e/lab.....	-	3	-	-	-	-
PASIBOA	521	1.452	225	570	133	8.578



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GALERA-IRABAZIEN KONTUAK 2009

Euroak milakotan

	Kulturgintza	Kirolak	Euskaltegia	Musika	Eraikitzen	Landako
Langileen gastuak	621	1.056	442	1.027	92	175
Kanpoko zerbitzuak	710	909	61	194	21	389
Tributuak	-	-	-	-	-	1
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak	6	6	-	43	-	-
Amortizaziorako zuzkidura.....	11	69	4	10	-	211
Kaudimengab. zuzkid. aldak	-	-	-	-	-	-
Gastu finantzario eta antzekoak.....	1	-	-	-	-	-
Aurreko ekitaldietako gastu eta galerak	-	-	-	-	-	-
GASTUAK	1.349	2.040	507	1.274	113	776
Negozio zifratik zenbateko garbia	48	463	82	348	-	281
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak	1.418	1.865	493	963	112	228
Hainbat urtetan banatzeko sarrerak	-	-	-	-	-	175
Bestel. kudeaketa sarrerak	3	9	-	-	-	5
Sarrera finantzarioak.....	2	9	2	3	1	2
Beste ekitaldi batzuetako sarr. eta mozkinak	7	-	-	-	-	-
DIRU-SARRERAK	1.478	2.346	577	1.314	113	691
Emaitza: Mozkina/Galera (-)	129	306	70	40	-	(85)





ALEGAZIOAK

ALEGAZIO ZK.: 1

EPIGRAFEA: II.1.1.1

Durango Udalak, irratzi-programaren ekoizpenerako aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuaren eskaintza egin zen publikoki. Kontratua, 2 urteko iraupena duena eta beste 2 urtez luza daitekeena, 2007ko apirilaren 18an esleitu zen. Enpresak aipatutako langilea subrogatu zuen. 2 urte pasatutakoan, 2009ko martxoaren 6an, enpresa esleipendunak uko egin zion aholkularitza- eta laguntza-kontratu hori luzatzeari.

Egoera hori ikusita, une horretan irratian zerbitzua ematen ari ziren bi langileak subrogatzea erabaki zuen Udalak aholkularitza- eta laguntza-zerbitzua beste enpresa bati esleitu arte.

Udal irratia berrantolatzeke koordinakundea Durango Komunikabideak, SA udal sozietate publikoak kontratatu zuen. Sozietate hori berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak bete zituen aukeraketa-prozesua egin ostean Durango komunikabideen kudeaketaz arduratzen zen.

Enplegu-eskaintzaren deialdia bi egunkaritan argitaratu zen (1. dokumentu gisa erantsi dira iragarkiak) eta hautagaiek emandako merituei puntuazioa eman zitzaien aurrez ezarritako baremoaren arabera (2. dokumentu gisa erantsi da akta).

Aldi berean euskara ezagutzaren proba egin zitzaien hizkuntza erraz hitz egiteko gaitasunaren egiaztagiririk aurkeztu ez zuten hautagaiei (3. dokumentu gisa erantsi da).

Azkenik, merituen fasean puntuazio altuena lortu zuten sei hautagaiei elkarrizketa pertsonala egin zitzaion (akta erantsi da 4. dokumentu gisa).

Prozedura amaitutakoan, lehen postuan geratu zen hautagaiak uko egin zion lanpostuari, eta bigarrenak onartu zuen (5. dokumentu gisa erantsi da akta).

Egiaztatuta geratu da langile-aukeraketak iragarki-, berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak errespetatu zituela.

ALEGAZIO ZK.: 2

EPIGRAFEA: II.1.1.4.

Zuzeneko diru-laguntzen erregulazioa 38/2003 Legeko 28. artikuluan ageri da, eta bereziki, 887/2006 EDko 65etik 67ra arteko artikuluetan.

Zuzeneko diru-laguntzak dira Tokiko Erakundearen Aurrekontu Orokorretan araudiz aurrez ikusitakoak eta horien helburua, aurrekontu-zenbatekoa eta onuraduna espresuki aurrekontuaren gastuen egoeran zehaztuta agertzen direnak.



Horiek ematea arautuko duen araudi espezifikorik ezean, Diru-laguntzen Lege Orokorrean aurrez ikusitakoa eta Araudi horretan aipatutakoa aplikagarri izango da diru-laguntza horietarako, salbu eta batean edo bestean iragarki- eta aldiberekotasun-printzipioen aplikazioari eragiten badio

Erreferentziazko diru-laguntzak, lehenengo kasuan, aurreko aurrekontuaren luzapenetik datoz. Luzatutako aurrekontu-egoera kudeaketaren blokeoa eragozteko ezarritako mekanismo bat da; hain zuzen ere kudeaketarako ezinbestekoa den tresna baten, aurrekontuaren, gabezia gertatuz gero gertatuko litzatekeen blokeoa eragozteko.

Onartutako azken aurrekontuan jasotako diru-laguntza nominatibo guztien luzapena egin da. Diru-laguntza horiek, urtez urte, behin eta berriz agertu dira, jarraitutasun-irtenbiderik gabe, gastu bereziko ekintzak direla kontuan hartuta, eta ezinezkoa da norgehiagoka sustatzea. Hau da, udalerrian diru-laguntza jaso zezaketen antzeko kategoriatan batzuetako beste objektu batzuen gabezia, edo beste nolabait esanda, antzeko helburuetara (eta antzeko balioduna) bideratutako pertsona juridiko edo fisikoen gabezia.

Era berean, ez dira Aurrekontua onartutako ekitaldian jaso beharrekoak ziren sarrera espezifikoekin edo eragindakoekin finantzatutako kredituak.

Zuzenean emateko diru-laguntzak direnean, interes publiko, sozial, ekonomiko edo gizatiarreko arrazoiak, edo behar bezala egiaztatutako deialdi publikoa zailtzen duten beste arrazoi batzuk egiaztatutakoan, zuzenean eman ahal izango dira, salbuespenez, Diru-laguntzen Lege Orokorreko 22. artikuluko 2. ataleko c) letrak aipatutako diru-laguntzak. Diru-laguntzen Lege Orokorrean eta Araudi honetan aurrez ikusitakoa aplikagarri izango da, batean edo bestean iragarki- eta aldiberekotasun-printzipioari eragiten badio salbu.

Espedientera gehitzea gaia dela eta eskuduna den diru-laguntzen organo kudeatzailearen memoria bat, diru-laguntzen izaera berezia justifikatzeko, interes publiko, sozial, ekonomiko edo gizatiarraren arrazoiak, edo deialdi publikoa zailtzen duten beste batzuk azalduz.

ALEGAZIO ZK.: 3

II.1.1. 5

Udalbatzak udal-igerilekuak eraikitzeke jatorrizko kontratuaren aldaketaren onarpenik formalki izan ez bazen ere, exekutatu beharreko aldaketa hainbat informazio-batzordetan landu zen bai Hirigintza eta Herri Lanetako batzordeetan, bai Ogasun batzordeetan; beraz, Udalbatza osatzen duten kide guztiek ezagutzen zituzten Igerileku klimatizatuen Exekuzio Proiektuaren aldaketarako proposamen teknikoak.

Eta ondorioetarako oinarritzkoagoa da, udala aurrekontu-luzapenean egonik, eta inbertsio berrien kontusailik ez zegoenez, kredituaren aldaketa bat onartu behar izan zela, Kredituen Gaitze modalitatean, eta izapidetu egin behar izan zela aldatutako proiektua biltzen zuten obrak egin ahal izateko; horrek guztiak ahalbidetu zuen erabiltzaile kopurua handitzea, eta 2008ko apirilaren 29an onartu zen osoko bilkuran. Osoko bilkurako adostasun hori izan ezean finantziatorik ez zen izango aldaketa biltzen zuten obrak exekutatzeko eta, beraz, ezin izango ziren exekutatu.

ALEGAZIO ZK.: 4

II.1.1.6.

2007ko urtarrilaren 2ko udal-eraikinak garbitzeko kontratuaren administrazio-baldintza partikularren agiriak sailkapen hau eskatzen zuen: M taldea (zerbitzu espezializatuak), 1 azpitaldea (higienizazioa, desinfekzioa, desinfektatzea eta arratoi-garbiketa), D kategoria. Ez da guztiz zuzena lehen aipatutako kontraturako, garbiketa orokorrekoa baino arlo zehatzagoari baitagokio.

Beraz, 2011n egindako lehiaketan sailkapen hori aldatu eta hau zehaztu zen haren ordeztu: U Taldea (Zerbitzu orokorrak), 1 azpitaldea (garbiketa-zerbitzuak, oro har), D kategoria, aurreko akatsa zuzenduta, emandako zerbitzua hobeto egokitzen baita kategoria honetara.

ALEGAZIO ZK.: 5

II.1.1.7

a.- Kalebarriako liburutegiko obrei dagokienez, kontratuaren lehen aldaketa 2009ko martxoaren 12an egin zen, 2009ko otsailaren 18an Zuzendaritza Fakultatiboak exekutatu beharreko jarduera zehatzak eta kausak arrazoitzen zituen txostena egin ostean. Txosten horretan obraren lehen faseko exekuzioan sortutako ustekabeko ugariri erreferentzia egiten zaio, baita Foru Aldundiko Kultura Saileko teknikariek egindako bisita batean eskatutako jarduketara batzuei ere. Deskribatutako ezustekoak 10 izan ziren, eta guztira 369.232,43 euroko zenbatekoa zuten. Kasu honetan, aldaketa kontusailak exekutatu ostean onartu zen, bakoitza lantzeko obrak geldiarazteak obren exekuzioan atzerapen handia eragingo baitzuen, eta exekutatu beharreko obra berrien kontusailak egin zitezkeen proiektua aldatu beharrik izan gabe, beraz, ez zen beharrezkoa obrak geldiaraztea.

2009ko azaroaren 11n, obraren amaierako egiaztapena 582.373,22 eurokoa izan zen. Likidazio horri egotzitako kontusailak Zuzendaritza Fakultatiboaren bigarren txostenean zerrendatuta datoz. Bigarren txosten horretan, proiektuan sartu gabeko kontusailak, obrako aldaketei eta obraren bigarren fasean sortutako ustekabeko batzuei egiten zaie erreferentzia. Likidazioa ordaintzeko kreditua sartzea 2009ko maiatzean hartutako osoko bilkurako adostasuna bidez onartu zen.

Lehen aldaketarekiko kostuaren igoera eragiten duten gorabeherak zuzendaritza fakultatiboak idatzitako txostenean jasota datoz. Txostena 2009ko irailaren 30ean sinatuta

dago eta obraren gorabehera guztiak jasota daude. Hauek dira igoera horiek sortu dituzten kontusailak:

KAPITULUA	INFORMAZIOA
FATXADAK	Harrizko ertzetakoak eta inguratzeak jartzeko (plakak jartze hutsa baino garestiagoa) neurketako akatsa proiektuan, baita neurri handiagoko harriak ezartzeko lineetan ere.
KANPOKO METALIKOA BARRUKO AROTZERIA	Patioko fatxadan errezel-hormaren azalera zabaldu da, pasabide publikoko eremuan.
IGELTSEROTZA	Ia erabat ezabatu dira barruko eremuak bereizten zituzten atek gerentziak sartutako irizpide berrien eraginez, eremu gardenagoak eta kristalezko bereizketak nahi baitzituen. Barruko bereizketa batzuk ezabatu dituzte gerentziak sartutako irizpide berrien eraginez, eremu gardenagoak eta kristalezko bereizketak nahi baitzituen. Baina aldiz, igeltserotzan horma bitartekoak egin dituzte hormigoizkoak izan ordez. Eskailerako eraikuntza-sistema berriaren ondorioz sortu da igoera, hormigoizko bloke zentrala jarri baita, solairuak akustikoki isolatzeko eta zirkulazioa antolatzeko. Errezel-hormaren azpian, barruko patioaren euskarrian, proiektuan jaso gabeko erremate berria, isolatuta eta iragazgaituta.
ESTALDURAK	Obran onartutako estaldura berriak: Estukoa erdiguneko horman eta karela eskaileretan. Arbel-horma eskailerako aurrealdeko horman.
ZORUAK	Proiektuko akatsa, fatxadako pintura eta egurrezko arotzeria bernizatzea ez sartzeagatik. Obran onartutako estaldura berriak: Arbelezko zorua, ez labaintzekoa, sarrerako eta eskaileretako eremuan Proiektuaren neurketa-akatsa, eraikin berriko solairu oso batean.
SABAI AIZUNAK	Proiektuko akatsa, sabai aizunen erremate gisa paramentu bertikalen aurka perimetro-faxa bat kontuan ez hartzeagatik.
ESTALKIAK	Jaitsi egin da estalkiaren eratze-sistema aldatzeagatik. Barne-hormaren gainean egin ordez, okertutako lauzen bidez egin da.
SARRAILAGINTZA ETA BEIRAK	Proiektuan aurrez ikusitako eskaileren barandak ijeztutako beirazko alboko itxitura-sistema batekin ordezkatu dira, altuera osoa estaliz, solairuen arteko isolamendu akustikoa hobetzeko, espazio gardenagoak lortzera bideratuta. Behe-solairuan haur-aretoaren itxitura ordezkatzeko, pasabide publikorantz, eta haren ordez u-glassezko trenkada berria jartzea, egitura metaliko lerrakorraren gainean. Eraikinerako sartzeko atariaren itxierarako ate berriak, liburutegi berriaren gerentziak aginduta, kale-edana saihesteko. Instalazioetako aireztapeneko patioan, igogailuko kaxaren atzean, estalkira sartzeko eskailera eta plataforma-sistema . Zertxa metalikoen sistema berria kristalezko banaketa eta trenkada mugikorra eusteko estalki azpiko solairuan, gerentziak sartutako irizpide berriak direla eta, espazio gardenagoak eta kristalezko bereizketak nahi baitzituen. Koadro elektrikoko armairuak sortzea eta kanpoko konmutazio-giltza, egitura metalikoarekin, harriz estaltzeko. Altzairu herdoilgaitzezko eskudel trinkoa eskaileretan. Patioko eskudela, mantentze-lanetarako langileak babesteko. Beirazko eta altzairu herdoilgaitzezko eskudela kristalezko atearan eta pasabide publikoaren arteko hutsartean. Metalezko askotariko erremateak.
INSTALAZIOAK	Hauek dira gorabehera garrantzitsuenak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ELEKTRIZITATEA: Kapitulu hau nabarmen handitu da, aldaketa ugari izan baititu, argi-puntuak eta indarrak handitu dira eta araudi-eskakizun berriak sartu dira, informatikako departamentuak eskaera berria ere sortu du.

SUTEAK: Proiektuan sotoko espazioa hartzen zuen suteetako ur-hartuneetarako ur-andela ordezkatu egin da eta pasabide publikoaren azpian lurperatutako bat jarri da, indusketa arkeologikoa egindako eremuan. Larrialdietako irteeran elektroiman-sistema sartu da, eta estalki azpian solairuko ikuspegidun detektoreak instalatu dira

LARRIALDIETAKO ARGITERIA: Araudiak hala eskatuta, larrialdiko argiteria-puntuen neurketa lau aldiz handitu da.

TELEKOMUNIKAZIOAK, AHOTSA ETA DATUAK. Informatikako departamentuak eskakizun berriak egin dituzenez, hartune eta kableen neurketak handitu egin dira.

MEGAFONIA: Zerbitzuen kalitatearen hobekuntzagatik jakinarazpenen hedatzaile kopurua bikoiztu egin da.

ARGITERIA: Kapitulu honetako prezioa jaisteko kalitatea pixka bat jaitsi egin da.

BESTE BATZUK

Obrako kontusail berri ugari sartu dira, zuzendaritza fakultatiboak hala erabakita:

Estalkiko segurtasun-kableak, etorkizuneko mantentze-lana errazteko.

Igogailutik haur-aretoa pasatzea errazteko ertzeko habe bat ebakitzea.

Atzeko patiorantz forjaketa ebakitzea, errezel-horma zabaltzeko ezinbestekoa.

Forjaketa eta hormigoizko hormen zulaketak instalazio elektrikoak pasatzeko.

Aireztapeneko instalazioetan suaren aurkako uhateak, hasiera batean aurrez ikusi gabeak.

Fatxadetan grafitien aurkako inprimaketa aplikatzea.

Aurreko aldaketan jasotako beste batzuk.

ITXITURAK

Liburutegiko gerentziaren erabakiz, espazioen banaketari aldakortasuna eman behar zaio, erabileren bateragarritasunerako elkarren artean isolamendu akustikoen behar adinako mailak mantenduta, espazioen gardentasun-sentipenaren abantailak galdu gabe.

Formalki aldaketa horiek obrak exekutatu aurretik adostu ez diren arren, udal-korporatiboek nahiz enpresa kontratistak bazuten horien berri; enpresa kontratistarekin modu kontraesankorrean ezarri ziren proiektuan sartu gabeko kontusailen prezioak.

b.- Lariz Torreko lan-kontratoari dagokionez ez deritzogu zehatza aldaerazpenen formalizazioa nahiko krediturik ez zegoela egin zirela adieraztear. Kontratu honen bi aldaketak biltzen zituzten obrako kontusailak kontratuak formalizatu gabe exekutatu ziren arren, ez da zehatza aldaketak behar adinako krediturik izan gabe formalizatu zirenik.

Lariz Dorreko obrak exekutatzeako kontusailaren hasierako zenbatekoa, udal-kontabilitatearen arabera, 909.370,93 eurokoa zen. Obra 859.668,56 euroko prezioan esleitu zen (BEZa barne), beraz, 49.702,37 euroko soberakina du. Kontratu mailako lehen aldaketa 2008ko abuztuaren 1ean onartu zen, 96.383,46 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne), aurretik 124.522,80 euroko zenbatekoa duen kreditua gaituta 2008ko uztailearen 23ko osoko bilkuran. Hasieran kontusailean zegoena eta gero gaitutakoa gehituz gero, egiazta dezakegu behar adina kreditu zegoela eta denboran, aipatutako lehen aldaketa nahiz 2008ko urriaren 8an onartutako bigarrena adosteko.

Kontratu mailako lehen aldaketa honen izapidetzea Zuzendaritza Fakultatiboaren txosten batekin hasi zen. Txosten hori 2008ko otsailaren 28an sartu zen Erregistro Orokorrean eta kontuan hartzen ditu, katalogatutako ondasun kulturala izanik, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Departamentuak Exekuzio Proiektuan ezarritako aldaketak. Aldaketa horiek,



gainera, kostu ekonomiko gehigarria dute (haritz-egurrezko kanpoko arotzeria eta ez Corten altzairuzkoa proiektuak zekarren bezala, bigarren leiho bikoiztua berreraiki behar da jatorrizko kokapenean, bigarren solairuko alboko bi leihoen gurutze-formako mainela berreskuratu). Beste kontusail batzuk exekutatu beharra ere biltzen du, esaterako, alboko fatxada saneatzea eta pintatzea eta Barrenkalea eta Zeharkalearen arteko kantoian Iberdrolaren jarraibideen arabera kutxatilak egitea, eta Lariz Dorrea eraikinaren beraren aurrean, berez obrakoak ez diren kontusailak izanik ere, ez litzateke zentzuduna izango beste noizbait egitea eta komeni da dorretxearen zaharberritzea exekutatzen ari dela aprobetxatuz egitea.

2008ko abuztuaren 1eko aldatutako kontratuan adierazitako moduan,

“V. 2008ko apirilaren 7an Hirigintzako Informazio Batzordeari jakinarazi zitzaion Zuzendaritza Fakultatiboak Durangoko Lariz Dorrearen Birgaitze Proiektuan jaso gabeko kontusail berrien exekuzioari dagokionez igorritako Proposamena; proposamen horrek kontratua aldatzea ekarriko luke nahitaez, aurretik Proiektuan jaso gabeko obra horiek egiteko egokia eta nahikoa den kreditua gaituta.

Txosten-Proposamenean aurrez ikusitako obrako unitateetako batzuk berehala exekutatzeke adostasuna lortu behar zela jakinarazi zuen Zuzendaritzak, berehala ez exekutatzeke obrak geldiaraztea eta horren ondoriozko atzerapena eragingo bailuke. Atzerapen gehiagorik gabe exekutatzea komeni ziren unitateak hormigoizko uztaiaren exekuzioa eta leiho bikoiztua irekitzea dira. Azken lan hori harri-lanetan aditua den enpresa batek egin behar zuen eta Olabarri enpresak azpikontratatu zuen, birgaitze-obren esleipenduna izanik.

Idazkaritzak Korporatiboei jakinarazi zien ezin zutela inolako aldaketarik adostu hura ordaintzeko krediturik izan gabe, orain arte 2008rako Aurrekontua onartu gabe egonik.

Aipatutako obrak exekutatzeke benetako beharra eta obra amaitzerako nahi ez diren atzerapenak saihesteko urgentzia zuela ikusirik, Informazio Batzordetik egokitzen jo zen espedientea hasia 2008ko otsailaren 28ko Zuzendaritza Fakultatiboaren Txostenean aipatutako arloetan Lariz Dorrea birgaitzeko obren kontratua aldatzeari ekiteko; dena den, aldaketa hori ezin izango zen adostu, ezta ondorioz izan ere proposatutako aldaketaren kosteei aurre egiteko egokia eta nahikoa zen kreditu gisako aurrekontu-esleipenik izan arte.

Hori dela eta, kontratistari gai horien berri eman zitzaion, eta dagokion entzunaldia eman, modu kontraesankorrean exekutatu beharreko unitate berrien prezioak ezartzeko; adostasuna lortzeko prezioen gainean, eta jarraian, udal-aurrekontua onartutakoan, edo aurrekontuaren luzapena eginez gero aurrekontu-aldaketa puntuala onartuz, kontratu mailako aldaketa egin zen.

Gauza bera gertatu zen 2008ko urriaren zortzian izenpetutako bigarren aldaketarekin; bertan sartuta daude Zuzendaritzak dagokion txostenean egin beharra justifikatzen duen kontusailak, 64.096,06 euroko zenbatekoa dutenak.

Obren amaierako ziurtapenari dagokionez, igoerak izan dituzten kontusail gehienak neurketako igoeren ondoriozkoak izan dira, hau da, Exekuzio Proiektuaren



aurreikuspenekiko obrako benetako exekuzioan izandako aldeen ondoriozkoak, eta horiek, kontratu publikoen araudiaren arabera, azken ziurtapenean sar daitezke, hasierako prezioarekiko % 10eko mugarekin. Hauek izan dira neurketa handitutako kontusailak:

Eraispenen Kapituluua

1/2 oineko lodierako adreilu trinkoen lantegia eraistea.

Egurrezko habeetan iltzatutako egurrezko oholak ateratzea.

Kargatzeko metro kubikoa eta obra-hondakindegira eramatea. Obratik obra-hondakinak ateratzea 1 m³-ko zakuetan. (Kargatzeko eta obra-hondakindegietara eramateko kontusailak xehatutako prezio hauek ditu: Materiala kargatzea, m³-ko zakuetan biltegitratzea, obra-hondakindegietara eramatea, hondakindegiko kanona, hondakina biltegitratzeko moduak aldatu du, obra ondoko edukiontzien ordez, m³-ko zakuen bidez egiten baita, eta horrek kontusaila garestitu egiten du).

Lurrak mugitzearen kapituluua.

2 metroko sakontasunera arteko zuloak egitea

Saneamenduaren kapituluua

Lurperatutako loturako PVCzko hoditeria sanitarioa, junturaduna

Estalduren kapituluua

Talotxatze zarpiatzea itxura ona emateko (Foru Aldundiak hala eskatuta, obra hasitakoan zarpiatzeko zementuzko morteroaren ordez karezko morteroa erabiltzeko eskatu zen, horregatik igo da prezioa).

Iturgintzako kapituluua

18 mm-ko diametroa duen kobrezko hodia

Bereizketen kapituluua

Fatxadako horman arkugainera egitea harlanduzko obra errespetatuta

6. justifikazio-dokumentu gisa erantsi da igoerak izan dituzten kontusailekiko Zuzendaritza Fakultatiboak emandako azalpenak dituen azken ziurtapena.

Kontuan hartzeko moduko zenbateko ekonomikoa duen (24.804,36 euro) eta aldaketa batean ere sartu ez zen kontusail bakarra 2008ko ekainaren 26ko 7. Txostenean Zuzendaritzak aipatutako da, eta akatsez, 2008ko abuztuaren 1eko kontratu-aldaketan ez zen sartu. Kontusail hori kaltetutako harlanduzko obra konpontzeari zegokion. Barrenkaleko



fatxadako harriak estaltzen zituen morteroa zulatzen hasi aurretik ezin zen jakin berreskuratu beharreko harlanduzko obren guztizko kopurua. Zulatzen hasitakoan, harlanduzko obrak oso kaltetuta zeudela ikusi zen, konpontzeko tratamendua behar zutela, harriari plakak jarrita edo adabakien neurriak ahalbidetuz gero konpontzeko morteroarekin.

4.123,31 euroko zenbatekoarekin “Leihoetako kanpoko junturak” gorako kontusaila Proiektuan sartu ez zen arren, egin beharreko lanaren zenbateko zehatza kalkulatzeko ezinezkoa izango zen aurrez, leihoetako hutsarteak ez baitzeuden berunez aztertuta eta alde horiek in situ koloreztatutako morteroekin xurgatu behar ziren leioa jartzeko unean. Artisau-lana eta lan neketsua zen.

“Instalazioen gelako sabai aizunaren” kontusaila proiektuan dagoeneko bazegoen. Obrako aldea hura eusteko moduan dago, uneren batean garbiketa- edo mantentze-lanak egiteko, sabai aizunak eutsi ezinezkoa litzatekeen pisua eutsi beharko zukeela kontuan hartuta, beraz, sendotasuna emango zion egitura osagarria eman zitzaion. Guztira 1.910,00 euro izan ziren

C.- Obra 550.962,64 euroko zenbatekoarekin esleitu zen eta % 17,223eko desbideratzearekin likidatu zen.

Hauek dira obrako igoera sortu zuten kontusailak:

1.- Mañaria ibaiko marjinetan harri-lubeta exekutatzeko:

URA Uraren Euskal Agentziak sustatutako “Durangoko eta Iurretako udalerrietan Ibaizabal ibaiaren ingurumen-berreskuratzea eta gaitasun hidraulikoa zabaltzeko proiektua, 2007ko urtarrila” proiektura egokitzeko aldaketa batzuk sartu ziren dagoeneko lizitazio-proiektuan.

Azaroan (2008) sortutako prezipitazio handien ondorioz presa txikitik ibaian gora zegoen harlangaitz-horma erori zen, eskuin marjinetan. Hori dela eta, uren ekintzarekiko erabat ezegonkor geratu zen ezponda babesteko harri-lubeta jartzen jarraitu behar izan zen. Klima-egoera hori dela eta, are desfase handiagoa izan zen eskuin marjina hori indartzeko beharrezko unitateen (indusketa, harri-lubeta eta hormigoia junturak berdintzean) eta proiektuan benetan jarritakoen artean.

2.- Frantzisko Ibarra kalea (lurren mugimendua, eraispenak eta energia elektrikoko sarerako afekzioa):

E-1 (ezker marjina) horma-bularraren indusketa egin zenean ikusi ahal izan zen egindako betegarri-lana hormigoizko lauza zaharraren gainean egin zela, material zaharraren eta betegarri berriaren artean trinkotasun egokia lortzeko aurrez plaka hura eraitsi gabe, infiltrazioko uren pasabidea ahalbidetuta. Gainera, erabilitako materialek eraispen-hondar asko zituzten (plastikoak, egurrak, burdina, adreiluak, baita estalki bat ere). Kalte horiek eragin zezaketen, obrak amaitutakoan eta bidea zerbitzuan jarri ostean, asentuak sortzea,



eta ondorioz, ezker horma-bularraren alboan galtzadaren egitura mailako arriskua. Egokitzat jo zen, beraz, material hori kentzen hastea, eta lubeta egiteko egokia zen beste batekin ordezkatzea, aurretik hormigoizko lauza eraitsita.

Bide horretako ardatzean doan drainaketa-sarea Mañaria ibaian ibairatzen da, zubi berriko horma-bularraren erdigunean (ezker marjina), beraz, ezinbestekoa da hori ere eraitea.

Ubidearen ertz horretan beste afekzio garrantzitsu bat, eta hori ere horma-bularraren indusketak eragindakoa, bertatik ibaian gora, jabari publiko hidrauliko eremuan, zegoen tentsio ertaineko lurpeko linea lekualdatu behar izatea izan zen.

Jarduketa horiek guztiak aurrez esan ezinezkoak ziren proiektua idazteko unean, alboko eraikina orduan eraikitzeke fasean baitzegoen eta ez zegoen ez biderik, ez eragindako azpiegitararik.

3.- Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren ibai-uren kolektorea aldatzea

Esleitutako proiektuan justifikatu beharreko BI MILA ZAZPIEHUNEN (2.700) gorako kontusaila jaso zen obrek eragindako azpiegituren sarea aldatzeko. E-2 (eskuin marjina) horma-bularra eraikitzeak Muruetatorre kalean doan saneamendu-kolektoreari eragiten zion, eta ondorioz, kanalizazio-bide berria egin behar zen, zegoen sare zatia eraitea eta bi (2) erregistro-putzu berri barne. Eragiketa hori guztia Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko teknikarien jarraibideen arabera egin zen.

Diametro handiko hoditeria denez (700 mm-ko diametroa duen hormigoi armatuzko hodia) eta hiru (3) metro baino gehiagoko sakoneran doanez, egindako desbideratzearen kostua, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko teknikarien jarraibideak zuzen-zuzen betez (haustura-probako hodi baten saiakuntza egin zen), nabarmen igo zen horretarako proiektuan zegoen aurrekontu kontusaila.

Auzitegiak adierazitakoari kalterik egin gabe, esan beharra dago Proiektuan jasotako kontusailenak direla jarduketak, eta horien neurketa erreala nabarmen handitu zela Proiektuaren exekuzioan. Obra hasitakoan exekuzioan zehar kontusail horiek igoera izango zutela aurrez ikusi balitz ere, ezin izan zitezkeen aurrez ikusi, adierazitako moduan, proiektatutakoarekiko benetako neurketak sortutako desbideraketak, batez ere eguraldi-gorabeherak eta udalerriz gairako erakundeek ezarritako eskakizunek sortutakoak baitira.

ALEGAZIO ZK.: 6

II.1.1.8

a.- Landakoko igerilekuen eraikin eta instalazioak eraikitzeari dagokionez, aipatu behar da 2/2000 Errege Dekretuak (kontratu honi aplikagarri zaion legedia) onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legeari buruzko testu bategineko (TRLIC, gaztelaniaz) 101 artikulua honakoa ezartzen du: *“kontratua burututakoan, kontratazio-organoak hura osatzen duten elementuetan interes publikoko arrazoiengatik soilik sartu ahal izango ditu aldaketak, betiere ustekabeko arrazoi edo behar berrien ondorioz, eta espedientean behar bezala justifikatuta.”*

TRLICko 149. artikulua ezartzen duenez, “obra-kontratuak suntsiarazteko arrazoi dira, 111. artikuluan adierazitakoez gain, honako hauek: e) Kontratuan egindako aldaketek, elkarren jarraian egindakoak izan arren, isolatuta edo batera, kontratuko prezioa aldatzea eragiten badute kontratuaren jatorrizko prezioaren % 20 (gutxi gorabehera) baino gehiagoko zenbatekoan, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo, edo hasierako proiektuaren funtsezko aldaketa eragiten dutenean.

150. artikulua: Aurreko artikuluen e) letrarekin lotuta, funtsezko aldaketatzat hartuko da, besteak beste, hasierako proiektuaren oinarriko ezaugarri eta helburuen aldaketa, baita gutxienez kontratuaren jatorrizko prezioaren 100eko 30ari eragiten dioten unitateen aldaketa ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo.

Lizitazio-printzipioetara ez direla egokitzen uste izateko oinarri gisa hartuko den kontratu-aldaketen ehuneko-mugarik ez zuen ezartzen TRLICk. Bertan ezarritakoaren arabera, administrazioak eta esleipendunak, proposatutako aldaketa % 20 gainditu edo objektuaren funtsezko aldaketa eragingo balu soilik izango zuen kontratua suntsiarazteko aukera.

Funtsezko aldaketa hori, kontratu-aldaketaren proposamenarekin hasierako obraren xedea (helburuak eta ezaugarriak) aldatzen denean edo gutxienez % 30i eragiten dion obrako unitateen aldaketa gertatzen denean. Ez dugu uste muga horiek gainditze hutsa, kontratua suntsiaraztea eragin dezakeen arrazoi izateagatik, edonola ere lizitazio-printzipioen urraketa izango denik. Urraketa gertatuko da TRLICko 101 eta 146 artikuluetan ezarritako kontratuen aldaketarako ezarritako eskakizunak betetzen ez direnean.

Obrak exekutatu bitartean hiru kontratu-aldaketa gertatu ziren:

1.- Linea elektrikoaren desbideratzea, 27.868 euroko prezioarekin.

Proiektuko akatsa izan zitekeen obrak egingo ziren orubea goi-tentsioko linea batek gurutzatzen zuela aurrez ez ikustea, baina horiek ezin ziren exekutatu desbideratzea egin gabe.

2.- Zimenduak jartzean arazoak, 768.711,48 euro:

Aldaketa-asmoa zuen Proiektuko Memorian azalduta dagoen moduan, 2006an obrak exekutatzeko hasi zirenean, eta zehazki pantailen exekuzioa hasi zenean, 2004an egindako azterketa geoteknikoan lortutako datuak in situ lortutako datuekin zehatz-mehatz bat ez



zetozeala ikusi ahal izan zen. [...] Indusketa 5,20 m-ko kotan dagoenean, eta zimenduak jartzeko putzuak exekutatzan hasitakoan, harria egun batetik bestera hainbat eremutan hautsi dela ikusi da, orduan eskatu zuen Zuzendaritza Fakultatiboak beste azterketa geotekniko bat lurraren mapa marraztu ahal izateko eta zimenduak jartzeko harri irmoa non dugun jakiteko (2007ko uztailearen 10eko Labeinen txostena), emaitza hain bereziak ikusita.

Zuzendaritza Fakultatiboak beste enpresa batekin beste zundaketa batzuk egiteko asmoa azaldu zuen eta orduan Igerilekuearako ABEEk geoteknikako beste enpresa baten txostena eskatu zuen Labeinen txostenaren emaitzak ebaluatzeko (2007ko uztailearen 25eko Harrilurren txostena).

Txosten honetan, eta dagoeneko induskatuta dagoen lurra ikusita, 5,30 m-ko kotatik aurrera sifonamendu-efektua aipatzen da, eta zimenduak jartzeko hainbat gomendio egiten dituzte. Txosten horretan azaldutakoa ikusita, Zuzendaritza Fakultatiboak zimenduak jartzeko sistema aldatzea erabaki zuen, Harrilurren txosteneko gomendioarekin, eta zapata isolatuetatik 80 cm-ko ertza duten lauzara pasatzea, 30 cm-ko hormigoizko ziklopeozko oinarriarekin. Lauzaren ertza handitzea eta hormigoizko ziklopeoaren lodiera uraren bultzadei eusteko dira.

[...] Lauzaren irtenbidea da, kasu honetan, gomendagarriena, egungo indusketaren kotan zimenduak jartzeko aukera ematen baitu, asentu diferentzialak saihesten ditu, lauza berritu esker uraren bultzadak konpentsa daitezke.”

Sifoi-efektua agertu denez, hasierako kontratuan aurrez ikusitako zapaten eraikuntza-sistema ezin da exekutatu eta lauza-sistemaren bidez exekutatu behar da.

Obra lizitatu eta egiten hasi aurretik auresan ezin den gertakaria da. Deskribatutako fenomenoak dela eta, hasieran proiektatutakoa baino garestiagoa den eraikuntza-sistema erabili behar izan da.

3. – Tarteko solairua egitea, 1.251.220,60 euro: gimnasioaren azalera zabaltzea eta aldagela gehiago sortzea.

Udalak ez du uste sartutako aldaketek hasierako proiektuaren helburua desnaturalizatzen dutenik. Azaldu den moduan, lehen bi aldaketak aurrez ikusi ezin ziren gertaeren ondoriozkoak dira, eta kontratazio-organoaren nahiaz kanpokoak, eta obra bera lortu ahal izateko egin behar izan ziren.

Hirugarren aldaketak sor ditzake zalantza gehien arlo horretan. Zalantza horiek, dena den, argitu egin daitezke garatu beharreko proiektuaren konplexutasuna eta denboran izandako iraupena ulertuz gero (proiektatu denetik lizitatu, esleitu eta obrak hasi arte). Udalerriko beharrek benetako aldaketa izan dute proiektua sortzen denetik haren exekuzioa hasi arte, eta nabarmen ugartu da kirol-instalazioen erabiltzaile kopurua.

Landako-2 gimnasioaren tarteko solairuaren eraikuntza “Durango Kirolak” zerbitzuak egindako proposamen baten ondorio izan da, beharren programa egin zenetik eraikinaren eraikuntzara arteko epean kirol-zerbitzuen eskaerak gora egin duela ikusi baitzuen.



Aipatu behar da Proiektua idazteko lehiaketa 2002koa dela; data horretan egin zen kirol-instalazioaren beharren programa. Hainbat arrazoi direla eta (azpiegituraren konplexutasuna eta neurria, finantziazio-zailtasunak, administrazio-kontrataziorako epeak, oinarrizko proiektuak eta exekuzio-proiektuak idazteko epeak eta abar), obrak ez ziren hasi 2007ra arte.

Epe luze horretan, kirol-zerbitzuen eskaera handitu zen, IMD-Durango Kiroletako Udal Institutua zena berregituratu zen eta “Durango Kiroiak” bihurtu zen, gerentzia sortu zen, udal-legealdi berria hasi zen eta kirol-instalazioen arloan herritarren beharrak aztertu ziren, eta hori guztia ikusita, gimnasiaorako, kardio-eremurako, gailuen zirkuiturako, spinning egiteko eta abarretarako bideratutako azalera handitzea egokia zela ikusi zen.

Prozesu hori guztia eraikuntza-obrak egin bitartean gertatu zen, eta 2008an planteatu zen gimnasioaren azalera eraikia handitzea, ezinbesteko beharra zela ikusita. Tarteko solairua sartu eta proiektua handitzea (eta horren ondorioz aldagelak, instalazioak, klimatizazioa eta abar berregokitzea) egokia ote zen edo esleitutako obra amaitu arte itxarotea, eta instalazioak jendeari zabaldukoan erreforma egitea hobe ote zen zalantza sortu zen une horretan.

Dilema hori ikusita, politikoki nahiz teknikoki jatorrizko obrak bere bidea egin bitartean aldatzea komeni zela erabaki zen, eta tarteko solairua sartu eta instalazioak egokitzea. Horrek guztiak obraren epea luzatuko zuen. Dena den, bigarren aukera hartu izan balitz baino kalte gutxiago eragingo zituen herritarrentzat, eta merkeago izango zen altxor publikorako.

Era berean, igerileku klimatizatuak lehendik zegoen kirol-konplexuan (Landako I) integratuko zirela kontuan hartu behar da, eta tarteko solairuaren eraikuntzak, hasiera batean proiektuan aurrez ikusi gabe zegoenak, obra nabarmen garestitu bazuen ere, kontuan hartu behar da espazioa hobeto aprobetxatu dela kirol-jarduerak egiteko espazio eta aldagela gehiago sortuta. Jatorrizko kontratuaren helburua ez da desnaturalizatu geratu, ezta eraginda ere; espazioaren aprobetxamendu hobe egin da, ez besterik.

b.- Kalebarriako liburutegi berrirako eraikineko obrei dagokienez, lehen aldaketa bat gertatu den arren eta likidazioaren unean kontusail berriak sartu diren arren, aurreko alegazio batean azaldu den moduan, aurrez esan ezin diren gertakarien ondoriozkoak (katalogatutako higiezina izateagatik Kultura Departamentuak ezarritako jarduerak) nahiz bere kudeaketaz arduratzen den Erakunde Autonomoak ezarritako eskakizun berrien ondoriozkoak izan dira. Likidazioan sartutako kontusail batzuek aldaketa jaso behar izan bazuten ere, horrek ez du esan nahi jarduera horrekin Udalak lizitazio-printzipioak urratu dituenik sortutako desbideratze ekonomikoa eta argudiatutako kontratuaren helburuaren desnaturalizazioa dela eta; hain zuzen ere, gure ustez, desnaturalizazio hori higiezinerako hasieran aurrez ikusitako helburua funtsean aldatzea edo ordezkatzeta izango litzateke, eta ez da hori gertatu, ezta gorako zenbatekoagatik ere, TRLCn jasotako erregulazioan ez baitago mugarik aldatutako exekuziorako zenbatekoari dagokionez. Aldundiaren eskakizun eta aurrez ikusi ezin diren gertakarietako kontusailak alde batera utzita, gainerakoak Erakunde Autonomoak eskatutako jarduketa puntualak dira, liburutegi erabilera anitzekoa izan zedin eta instalazio

mota horren kudeaketan azken joerak eta jarraibideak sar zitezten, Proiektuari egindako hobekuntzak izateaz gain. Hauek aipatu dira adibide gisa:

BARRUKO AROTZERIA	<p>la erabat ezabatu dira barruko eremuak bereizten zituzten atek bere kudeaketaz arduratzen den Erakunde Autonomoak sartutako irizpide berrien eraginez, eremu gardenagoak eta kristalezko bereizketak nahi baitzituen. Espazio gardenek irisgarritasun hobea dutela uste dugu. Kristalezko bereizketek zabaltasun-sentipena ematen dute eta, bestalde, argia sartzen da, eta hori garrantzitsua da liburutegiaren kokapenean, udalerriko alde zaharrean baitago, eta bertan argitasuna ez da oso handia.</p>
SARRAILAGINTZA ETA BEIRAK	<p>Proiektuan aurrez ikusitako eskaileren barandak ijeztutako beirazko alboko itxitura-sistema batekin ordezkatu dira, altuera osoa estaliz, solairuen arteko isolamendu akustikoa hobetzeko, espazio gardenagoak lortzera bideratuta.</p> <p>Behe-solairuan haur-aretoaren itxitura ordezkatzeari, pasabide publikorantz, eta haren ordezkari g-lassezko trenkada berria jartzea, egitura metaliko lerrakorraren gainean.</p> <p>Eraikineri sartzeko atariaren itxierarako ate berriak, Liburutegi berriaren gerentziak aginduta, kale-edana saihesteko. Espazioa plazara zabalik zegoen korridore gisa pentsatuta zegoen, Kalebarria eta Komentukalea lotzen zituen pasabidearekin. Espazio hori pub eta diskotekak dauden eremuan dago, eta segurtasun osoz esan daiteke eremu hori zikinkeriaz (zaborra, eginkariak eta abar) betetako kale-edaneko eremu bihurtuko litzatekeela, bereziki asteburuetan. Hori dela eta, pasabide hori eraikineri txertatzeko eskatu zen.</p> <p>Instalazioetako aireztapeneko patioan, igogailuko kaxaren atzean, estalkira sartzeko eskailera eta plataforma-sistema .</p> <p>Zertxa metalikoen sistema berria kristalezko banaketa eta trenkada mugikorra eusteko estalki azpiko solairuan, Erakunde Autonomoak sartutako irizpide berriak direla eta, espazio gardenagoak eta kristalezko bereizketak nahi baitzituen., Jarduketa horren asmoa haur-liburutegira komentukaleko plaza irekira txertatzea zen, zerbitzua kalera ateratzeko modua, bereziki udan.</p> <p>Koadro elektrikoko armairuak sortzea eta kanpoko konmutazio-giltza, egitura metalikoarekin, harriz estaltzeko.</p> <p>Altzairu herdoilgaitzezko eskudel trinkoa eskaileretan.</p> <p>Patioko eskudela, mantentze-lanetarako langileak babesteko.</p> <p>Beirazko eta altzairu herdoilgaitzezko eskudela kristalezko atearen eta pasabide publikoaren arteko hutsartean.</p> <p>Metalezko askotariko erremateak.</p>
ITXITURAK	<p>Liburutegiko kudeaketaz arduratzen den Erakunde Autonomoak erabakiz, espazioen banaketari aldakortasuna eman behar zaio, erabileren bateragarritasunerako elkarren artean isolamendu akustikoen behar adinako mailak mantenduta, espazioen gardentasun-sentipenaren abantailak galdu gabe. Espazio bakarra (azken solairukoa) aprobetxatzea zen asmoa, hiru jarduera egin ahal izango ziren eremu multifuntzional gisa. Itxiturak ireki egin daitezke, eta horri esker, espazio bat eta hiru espazio artean izan daitezke jarduerak egiteko. Uler daitezkeen moduan, itxiturak isolamendu akustikoa eman behar diote hiru eremuei, horietako batean jarduera bat eginez gero beste bietan ez baitu eraginik izan behar.</p>

ALEGAZIO ZK.: 7

II.1.1.9

TAO ezartzeko eta kudeatzeko zerbitzuari dagokionez, 2006ko abenduaren 21eko osoko bilkuran adostu zen Durangoko Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenamendu Arautzailera hasiera batean aldatzea. Aldaketa horren helburua aplikazio-eremua 750 plaza gehiagotan handitzea zen, baina ez zen behin betiko onartu, eta beraz, ez zen indarrean jarri.

Kontratuaren esleipendunek kontrolatu beharreko hasierako plaza kopurua, Kontratuaren Administrazio Baldintza Partikularren Agiriko 13. klausulan ezarritakoaren arabera, 1.237koa zen gutxi gorabehera, hasiera batean lortu nahi zen aldaketa, eta berriz esaten dugu ez zela indarrean jarri, beste 750 plazatan handitzea zen.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2009ko uztailaren 13an, 131. zenbakikoan, argitaratutako 2009ko ekainaren 25eko osoko bilkurako adostasun bidez onartu zen hasiera batean Ordenantza aldatzeko proposamen berria, eta hala onartu zen behin betiko 2009ko azaroaren 12an.

Azken proposamen horren helburua hasierako proposamenarekin alderatuta desberdina zen, helburu nagusietan jasotzen baitzen gremioetarako txartela sortzea eta ezintasunak dituzten pertsonen ezintasun-txartela ematea, Ordenantzaren aplikazio-eremuan denboramugarik gabe aparkatzeko.

Ordenantzaren aplikazio-eremua udalerriko beste hiru kaletara ere zabaldu da (Zabale, Askatasun Etorbidearen atzealdea eta San Ignazio), gainera, “egoiliarren” plaza batzuk eremu urdin bihurtu dira. Zabaltze horrek guztiak beste 150 plaza berri sortu ditu, hau da, hasierako plaza kopuruarekin % 12ko igoera. Horretarako, esleipendunak txartelak ateratzeko hamar makina jartzeko inbertsioa egin behar izan zuen. Era berean, hedapena aplikatzen den kaleetan bizi diren pertsonen egoiliar-txartel gehiago banatzea dakar. Horien sarrerak oso-osorik Udalak jasotzen ditu. Udalak ez du uste, beraz, ez kontratuaren objektua zein kontratuaren kopuru ekonomikoa desnaturalizatu egiten denik, izan ere, Honek Udalak jaso beharreko kanon aldakorrean eukiko bait zukeen islada.

Era berean, kanon aldakorrarekin lotuta, Agiriko 9. klausulan bertan garatzen dela aipatu behar dugu. Klausula horretan zehazten da Durangoko Udalak eskubidea izango duela “urteko soberakinaren” ehuneko jasotzeko, ehunekoen taula baten arabera; taula hori eskaintza-egileak hobetu dezake. Soberakinaren kontzeptuan zalantzak sor daitezke. Gure ustez soberakina benetako diru-sarreraren eta kontrataren gastu errealaren arteko diferentzia da. Gastu horrek zuzeneko edo zeharkako kostuak izan ditzake, eta horretatik, ehuneko bat gastu orokorretarako eta mozkinetarako izango da.

Eskaintza ekonomikoaren arlo horren asmoa, nabarmena denez, zerbitzuaren estandarra mantenduta sarrerak maximizatzea eta kostuak minimizatzea, eta emakida ematen dionaren eta emakidadunaren artean soberakina banatzea da. Gure ustez, beraz, soberakina hitzaren kontzeptuarekin ez dago zalantzarik. Hau da, sarreraren eta gastuaren arteko aldea da.



ALEGAZIO ZK.: 8

II.1.2 – 1) IBILGETUA

Egungo ibilgetuaren hobekuntza edo kopurua ugaritzea eragiten duten ekintza guztiek kontularitzako isla dute. Mugimendu horiek urtero udal-inbetarioan inbertsio gisa sartzen dira, baina ez dago konexiorik inbetarioa jasotzen duen programaren eta udal-kontularitzaren artean.

ALEGAZIO ZK.: 9

II.1.2 – 2) DIRUZAINTZAKO SOBERAKINAREN KALKULUA

a) Uren horniketa-tasa 2009ko 4. hiruhilekoa (A3)

Udalak ur-horniketako tasaren bilketa-funtzioa Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoari eskuordetuta duenez, haren kudeaketaren inguruko datuak atzerapen nabarmenarekin iristen zaizkigu; kasu honetan, informazioa 2010eko martxoaren 3an iritsi zen Udaletxera, beraz, materialki ezinezkoa da 2009ko ekitaldian datu horiek kontabilizatzea. Egoera hori behin eta berriz gertatu da azkenaldian, beraz, udalak erabaki zuen urteko 4 hiruhileko kontabilizatzea: uneko ekitaldiko lehen hirurak eta aurreko ekitaldiko azkena.

b) Udalkutxa 2009 (A4)

Auzitegiak abenduaren 31n sortutako eta erregistratu gabeko betebeharrak gisa adierazitako zenbatekoa 2009ko ekitaldiko kontura entregatukoaren eta Udalkutxaren azken likidazioaren (2010eko otsailean jakiten da datua) arteko aldeari dagokio. Bestalde, BFAk alde hori kontabilizatzeke gomendatutako irizpidea ekitaldi horretan itzuli beharreko zenbatekoa etorkizuneko ekitaldi bakoitzari aplikatzea zen.

c) 2010ean erregistratutako fakturak (A7)

- Dagokion aurrekontu-kontsignazioa lortu zen unean ordaindu ziren Lariz Dorrearen proiektuarekin lotutako fakturak.
- Mañaria ibaia: Obraren likidazio-unean esleipenaren prezioaren desbideraketa izan dela jakinda, eta aurretik 2009ko abenduaren 22ko datarekin Alkatetxaren ebazpen bidez kontratazio-organoak desbideratze hori onartuta, ordaindu egin da.
- Landakoko igerilekuen proiektuarekin lotutakoak: Obretako akatsen zuzenketaren mende geratu zen proiektuaren likidazioari zegokion fakturaren ordainketa efektiboa. Zegokion zuzenketak egin ostean, faktura ordaindu zen. Igerilekuetako obren ejekuzioak atzerapena pairatu zuten beste kontratu beten objektua izan zen urtegi kolokazioa del aeta. Lana ezin zen kitatu, behin urtegiak kolokatu ondoren, obra printzipalaren esleipenduak beharrezkoak ziren erremateak bukatu arte. Obrak geldirik Egon ziren apean kontratsita printzipalak egindako lanetan (zertifikazioaren bornean zeuden partidetan) akatsak azaldu ziren, eta honen ondorioz ez zen aipatutako zertifikazioa ordaindu lanak jabegoak harrera egiteko eran egon arte.



- d) Suteen aurkako foru zerbitzurako ekarpena; Aurreko eragiketetan bezala, kontzeptu honegatik BFari likidatu beharreko zenbatekoari dagokion datua ez da ezagutu 2010 arte. Urtero, aurreko ekitaldiari dagokion zenbatekoa hurrengo ekitaldian kontabilizatzea erabili da irizpide gisa.
- e) Merkagune 2008 diru-laguntza 2010ean itzulia: Diru-laguntzatik kobratutako zenbatekoa itzuli eta kobratu gabeko zatia baliogabetzeko beharra zehaztu zuen Eusko Jaurlaritzaren Ebazpena 2010eko ekainaren 22koa da, beraz, ezinezkoa da aurrez jakitea eta kontabilizatzea. (7. justifikazio-dokumentua erantsi da)
- f) Faustegoiena sektoreko birpartzelazio-kostuak; 10/2010 eta 11/2010 faktura-zenbakiak, 39.204,27 y 86.652,83 zenbatekoa dutenak, hurrenez hurren, “Faustegoiena sektoreko birpartzelazio eta hirigintza-garapenerako sortutako gastuak” kontzeptuari dagokionak, 2010ean jaulki, jaso eta ordaindu ziren. Dena den, egia da 2009an ezagutzen zela ordaindu beharreko zenbatekoa, baina, Durangoko Udala aurrekontu-luzapeneko egoeran egonik, ezin izan zen 2010eko ekitaldira arte nahikoa aurrekontu-kontsignazio esleitu (urte horretan egin ziren efektibo birpartzelazioak eragindako gainerakoen kuotak).
- g) Desbideratze eta maileguak; Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren soberakinean doiketa gisa sartzen dira finantziazioaren desbideraketei eta eskuratu gabeko maileguei dagozkien zenbatekoak. Udalak, aspaldiko urtetatik, altxortegiko soberakina kontzeptu horiek kontuan hartu gabe kalkulatu du, altxortegiko soberakin garbiak guztizko soberakinaren eta finantziazioaren desbideraketa edo maileguekin lotutako eta konprometitutako gastu guztien arteko aldea ematen baitu. Zehazki, auzitegiak aipatutako zenbatekoen gainean, Udalak 2010eko urtarrilaren 2an altxortegiko soberakinaren kargura sartu zituen eskatutako maileguarekin finantzatutako gastu guztiak, baita desbideraketak sortzen dituzten diru-laguntzekin finantzatutakoak ere.

ALEGAZIO ZK.: 10

II.2.1.1

2009an 6 irakasle kontratatu ziren Bartolome Ertzilla Musika Eskolan, berdintasunari, merezimenduari eta gaitasunari dagozkion printzipioak errespetatuz:

- BIOLINA: Lanaldi osoko kontratazioa egin zen, irakasle titularraren amatasun-bajaren ordekoa hartzeko. 09/02/02an argitaratu zen eskaintza prentsan (iragarkia 8. agirian doa), eta hautagaiek aurkeztutako curriculumak aurretik finkatutako irizpideen arabera baloratu ziren (honekin batera doa aldi baterako eta ordezkapen-kontratueterako merezimenduen baremazio-txantiloia eta merezimenduen lehiaketaren emaitza).
- MUSIKA HIZKUNTZA: Irakasle titularra aldi baterako ezintasunagatik bajaran dago, beraz, ordekoa behar da.

Langileak hautatzeko, 2007ko ekainean osatutako lan-poltsara jo genuen. Lan-poltsa hura erretiro partziala hartu zuen irakasle titularraren lanaldiaren % 85 egiteko langile bat hautatzeko prozesua gauzatu ondoren sortu zen.

Lehen hautagaia txanda-kontratu baten bidez hasi zen lanean eta aldi baterako ezintasun egoeran zegoen irakaslearen tokia betetzeko zerrendako bigarren hautagaia hartu zen (honekin batera doaz atxikita prozesuaren oinarri arautzaileak 9. agirian eta amaierako akta 10. agirian).

- 2009an egindako beste lau kontratazioei dagokienez, deialdi publikoa egitea ez zela beharrezkoa erabaki zen, lanean urte asko zeramatzen langileei buruzkoak eta prozesuari publizitatea egin ondoren erakunde autonomoak une hartan ezarritako baremazioan oinarrituta hautatutakoak baitziren (honekin batera doaz atxikita, 11. agirian prentsan argitaratutako iragarkiak, behin-behineko eta ordezkapenetako langileen merezimenduen baremazio-txantiloia 12. agirian eta merezimendu-lehiaketan emaitzak 13. agirian).

ALEGAZIO ZK.: 11

III.1) AURREKONTUARI ETA KONTABILITATEARI BURUZKO KONTSIDERAZIOAK

- 10/2003 Foru Araua aurrekontu-luzapenari buruz zehaztasunik gabe idatzita dagoenez, eta txostenean aipatzen diren diru-laguntzak aurreko ekitaldietan bateratutako gastuak zirenez, Udalak kreditu horiek luzatzeko irizpidea hartu zuen, baina
- 0,4 milioi euroko sarrera egiteari dagokionez, esan beharrezkoa da kreditua dagokion funtzionalaren kontusailean (31-5114-62204), RC moduan zegoen kreditu-geldikin baten kontura sartu zela 2008-12-31n. Kreditu-atxikipen hori bi aurrekontu-aldaketei egin zitzaien (kreditua gaitzea eta kreditu gehigarria) eta 2008-12-31n eta 2008-12-26an gauzatu ziren hurrenez hurren. Horrela, aurrekontuaren kontusaila behar adinakoa zen etorkizunean kontratua aldatzeko (eragiketa hori 2009ko ekitaldian formalizatu zen 2008 aurrekontuaren kontura, baina 2009-03-31 baino lehenagokoa da. Hori da legeak aurreko ekitaldiaren likidazioa aurkezteko ezartzen duen muga).
- Bitarteko funtzionarioen sailkapen ekonomikoari dagokionez, azken urteotan Durangoko Udalak bitarteko langileei zegozkien gastu guztiak aurrekontuaren kontusail berean sartu ditu, bete gabeko lanpostuetako bitarteko funtzionarioen, aldi baterako baja bat ordezkatzeko lanean hasten direnen eta karrerako funtzionarioen arteko bereizketarik egin gabe; aurrekontu-irizpide hori 235/2004 Foru Dekretuak proposatutakoa betez gauzatu da. Foru Dekretu horren bidez onartzen dira Bizkaiko tokiko erakundeen aurrekontu-egitura eta kontabilitate publikoaren plan orokorra.
- Udalak kanon finkoa kobratzen du kontratua indarrean denetik. Kanon aldakorrari dagokionez, kanona aplikatzeari buruzko iritzi ezberdinak dituzte Udalak eta emakidadunak. Pleguaren 9. klausulan aipatzen den kanon aldakor horrek adierazten du Durangoko Udalak “urteko soberakinaren” ehuneko bat eskuratzeko eskubidea duela, eskaintzaileak hobetu zuen portzentaje-taularen arabera. Zalantza soberakinaren kontzeptu horren inguruan sor daiteke. Gure ustez, soberakina kontratuaren benetako diru-sarreraren eta benetako gastuen arteko aldea da. Gastu horiek zuzenekoak edo zeharkakoak izan daitezke eta gastu orokorrentzako eta onuradunarentzako ehuneko bat osatzen dute. Soberakin hori banatzeko irizpideak finkatzeko izapideak abian dira.



ALEGAZIO ZK.: 11

III.2.

- c) Udaltzakerak 2009ko irailean onartutako Udaleko lanpostuen zerrendan 158 lanpostu zeuden eta aurrekontu-plantilla 153 lanpostukoa zen. Hala ere, esleituak daude ULZan okupatuta dauden lanpostu guztiak (honekin batera doa atxikita 14. agiria).

ALEGAZIO ZK.: 12

III.3.

- a) Ikastetxeetako energiaren eta mantentze-lanen gastuak Udalaren gastuen 2. kapituluari dagozkio formalki, baina gastua eraginkorragoa eta erantzukidetasuneko izateko, bi gurasoen elkarrekin finantzatzea erabaki zen, gastu horiek haiek kudea zitzaten eta, beraz, gastu horiek Udalari justifikatu zitzaizkion. Ekonomiaren zein erantzukidetasunaren ikuspuntutik, oso ona izan da emaitza, azken urteotan ikasle kopurua handituta ere, kontsumoa jaitsi egin delako eta udalaren ekarpena ez delako handitu.

ALEGAZIO ZK.: 13

III.4 .ESPEDIENTEA ETA ESLEIPENA

- a) Herri Administrazioen Kontratuaren Legeari buruzko testu batekin (TRLR) 86. artikuluan adierazten du prezioa izan daitekeela eskaintzak baloratzeko irizpidea. Ez du ezartzen prezioa jaisteko muga jartzeari buruzko debekurik.

Formula mota jakin bat erabiltzearen helburua prezioa gehiegi jaisteak zerbitzuaren kalitateari egin diezaiokkeen kalte saihestea zen.

- b) TAO zerbitzua (3) kudeatzeko eta ezartzeko kontratuaren funtzionaltasunekin harremanik gabeko balorazio-irizpideak sartzeari dagokionez, honako hau adierazten dugu:

“Lehiaketa esleitzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira, garrantzi handienetik eta lortutako puntuazio handienetik txikienera ordenatuta:

- 1.- Aurkeztutako azterlan teknikoa (0-40 puntu)
- 2.- Giza baliabideen plana (0-35 puntu)

Esleipen-irizpide honetan puntuak lortzeko, esleipendunak irizpide hauek guztiak bete beharko ditu:

- a) Emakidadunak zerbitzua eskaintzeko dituen langileek, jendearekin harremana dutenez, EAEko bi hizkuntza ofizialak ondo jakin beharko dituzte idatziz zein ahoz eta beste hizkuntza bat jakitea ere baloratuko da, ahal dela ingelesa.
- b) Ez da Aldi Baterako Laneko Enpresen bidez kontratatuko langilerik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- c) Langileak kontratatzeko, esleipendunak Langai (Euskal Lan Zerbitzua) eta INEM zerbitzuak erabili beharko ditu.
- d) Kontratutako langileen % 50 behintzat emakumezkoa izango da emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.5 artikuluan aurreikusitako ekintza positiboaren printzipioa aplikatuz.

3.- Aurkeztutako eskaintza ekonomikoa (0-10 puntu)

Eskaintza ekonomikoa ondorengo gutxienekoen taularen arabera puntuatu eta baloratuko da. Eskaintza ekonomikoaren zati aldakorra kanon aldakorrarekin bat datorrela ulertuko da:

Urteko soberakina	% Udala	% Emakidaduna
<= 30.000 euro	% 95,00	% 5,00
30.001-60.000 euro	% 87,50	% 12,50
30.001-100.000 euro	% 80,00	% 20,00
100.001-150.000 euro	% 72,50	% 27,50
> 150.000 euro.....	% 65,00	% 35,00

Eskaintza hori hobetu egin dezake lizitatzailerak eta Udalarentzako 0,20 hobetzen diren taulako goiburu guztien ehunekoan egindako hobekuntzengatik, puntu 1 gehiago lortuko da. Ondorengo hau da gehienezko puntuazioen (10 puntu) mugak biltzen dituen taula:

Urteko soberakina	% Udala	% Emakidaduna
<= 30.000 euro	% 97,00	% 3,00
30.001-60.000 euro	% 89,50	% 10,50
30.001-100.000 euro	% 82,00	% 18,00
100.001-150.000 euro	% 74,50	% 25,50
> 150.000 euro.....	% 67,00	% 33,00

4.- Proposatutako hobekuntza ekonomikoa (0-5 puntu), Udalarentzat doakoak.

5.- Aurkeztutako azterlan ekonomikoa (0-5 puntu)

6.- Berme osagarriak (0-5 puntu)

Ezarrিতako irizpideen helburua kontratua Udalarentzat ekonomikoki ahalik eta onena izatea zen. Alderdi sozialei ere, berdintasunari eta herritarren hizkuntza-eskubideei kasu, garrantzia eman nahi zitzaion. Horiek, herritarrek, baitziren kontratuaren azken xede. Beraz, aipatutako balorazio-irizpideak kontratuaren funtzionaltasunekin harreman zuzena daukatelakoan gaude. Trebakuntza-planaren hainbat alderdi ez ziren balorazio-irizpide gisa



ezarri behar, nahitaez bete beharreko irizpide gisa baizik. Honako erzipidea zuzendu egin da hurrengo prozeduretan

Liburutegiko altzarien kontratuaren (4) funtzionaltasunekin loturarik ez zuten balorazio-irizpideak sartzeari dagokionez:

Honako hauek ziren Pleguan zeuden balorazio-irizpideak:

- √ Prezioa
- √ Gauzatzeko epea
- √ Bermealdia luzatzea
- √ Hobekuntzak
- √ Altzarien diseinua, funtzionaltasuna eta ingurumena babestea, obraren proiektuarekin eta plegu tekniko honekin bat etorrira: Ondorengo alderdi hauek bakarrik hartuko dira aintzat:

- a) Sorkuntza-proposamena. Altzarien diseinua eta originaltasuna.
- b) Eraikinaren irudi globalarekin eta nortasun korporatiboaren eskuliburuarekin koherente izatea.
- c) Xehetasunen eta zehaztasunen norainokoa
- d) Ingurura eta zerbitzuaren erabiltzaileen beharretara egokitzeko gaitasuna
- e) Kolore-aukera zabala izatea.
- f) Ingurumen-hobekuntzak aglomeratuetan, altzairuzko xafletan, tapizetan, plastikoetan, eskainitako produktuak disolbatzaile organikorik gabe garbitzeko aukera, materialak birziklagarriak izatea, bilgarriak ere birziklagarriak izatea.

Irizpide guztiak kontratuaren helburu den hornikuntzaren funtzionaltasunari buruzkoak direla uste dugu. Azken irizpideari dagokionez, hori baita zalantzak sor ditzakeena, adierazi nahi dugu irizpidea ongi dagoela azalduta, altzariak eraikitzeo erabilitako materiala ingurumen aldetik iraunkorra izatea baitu helburua, horrela, Preskripzio Teknikoen Pleguan azaldutako prestazioak hobetuz. Ez zaigu iruditzen gabeziatzat hartu behar denik.

Igerileku klimatizatuak eraikitzeo kontratuan funtzionaltasunekin zerikusirik ez duten balorazio-irizpideak sartzeari buruz, adierazi nahi dugu, ondorengo hauek direla erabili ditugun balorazio-irizpideak:

- a) Lanaren azterketa maila (30 puntu)
 - Antolaketa eta lan-programak
 - Asistentzia tekniko espezializatuak
- b) Eskaintzaren balio ekonomikoa (40 puntu)



c) Kontratatzaileak eskainitako balio teknikoa (30 puntu)

Mantentze-lanak 10 puntu

